

uk

242. zenbakia / 2013ko azaroaren 20a



URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki
Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri
Urte osoan eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean
Urte osoan argazki zahar eta barriak
Urte osoan zure proiektuak lau haizetara
Urtean 20 euro

uk Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz **neuk ere gura dot** **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**

DACIA DUSTER BERRIA

Probatuz gero, arrisku handi bat hartuko duzu: erosi egin beharko baituzu!

EZ UKO EGIN EZERI

3 URTEKO² bermea edo 100.000 km

10.200€-TIK AURRERA¹
 +TEKNOLOGIA +MOTORIZAZIO +LUR OROTARAKO IBILGAILUA

Dacia Duster: kontsumo mistoa (l/100km) 4,5 eta 7,0 artean. CO₂ isuriak (gr/km) 123 eta 185 artean.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL 94 448 39 00. DEUSTU · www.bilboberri.com
LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberoa Iturburu, Julen Nafarrate, Nerea Gujarrubia, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILERAK: Jorje Perez, Bitor Egurrola, Amando Llamas, K. Olate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Ixone Vega, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lopoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

| | | |
|--|--|--|
| | | |
| | | |
| | | |

TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTZATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAIA. Hizkuntza Politikaren Batzordea. DEPARTAMENTO DE EDUCACION, POLITICA LINGÜISTICA Y CULTURA. Ministerio de Política Lingüística

Bizkaiko Foru Aklundia
 Diputación Foral de Bizkaia
 Kultura Saia
 Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Udagoiena bertan da...
6. FACEGUK. Zer deritzozu Erasmus-bekak kendu gura izanari?
7. LEHEN ETA ORAIN. Neguri-Avanzada.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Itzi Zarraga eta Manu Cueto.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Berangoko perretxiko-jardunaldiak.
28. ARGAZKIA. Villa Eloisa (Neguri).
30. BERBETAN. Jonathan Castroviejo.
34. FOTOGRAFIA. Hodei Torres.
40. SAKONEAN. Emakumeek sortutako literatura erotikoa.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Lekeitioko Euskal Zine Bilera.
43. MUSIKA. Nazioarteko Trikitixa jaialdia Getxon.
44. LIBURUAK. *Gabrielen Lekua* ikuskarria Sopelan.
45. KIROLAK. Arrautzalde on taldearen 20. urteurrena.
46. MUNDUKATUAK. Aritz Zabala.
47. JENTILKOKA. Aideko.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Piperren goxoagaz...
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algorta trainera, 1982.
54. AITORMENAK. Hung Fai.

Azala: Hodei Torres

www.ukaldizkaria.biz



30 Jonathan Castroviejo

Berbetan

Arrapaladan badabil ere, txirindulari getxoxtarra harrapatzea lortu du, txirindularitzaz lasai berba egiteko.



11 Itzi Zarraga eta Manu Cueto



54 Hung Fai

gela barruko mahal baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik e...
 barruko mahal baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik e...
 mahal baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK...
 mahal baten gainean orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK...
 orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK...
 orri bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK...
 bat, eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK...
 eta izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK...
 izenburu bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK...
 bat letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik e...
 letra larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik e...
 larriz idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik e...
 idatzia: EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik e...
 EMAKUMEAK ETA LITERATURA. Besterik e...
 ETA LITERATURA. Besterik e...
 LITERATURA. Besterik e...
 Besterik e...

48. DURANGOKO AZOKA

kulturaren plaza

2013ko abenduaren 5etik 8ra

www.durangokoazoka.com

@durangokoazoka

ANTOLATZAILEA
 Durangoko Azokak

BABESLE NAGUSIA

 Bizkaiko Foru Aklundia
 Diputación Foral de Bizkaia

BABESLE PUBLIKOAK

DURANGO Udala - Ayuntamiento

 euskotren

BABESLE PRIVATUAK

K.Olate

Andoni

Andoni asko poztu zen sugeak aizkora betiko baztertu zuela jakin zenean: noizbait ere iritsia zen hainbeste bilkuretara aldarrikatu eta bijilietan erregututako bakea. Xingola urdina oroigarri kuttunen tiraderan gorde zuenean, bere eginbidea zintzo konplitu izanaren kontzientziak gogobete zuen gure gizona.

Gizon zintzoa da Andoni ororen gainetik: kontzientziak aginduta hasi zen bahiketa edota atentatuen aurkako bilkuretara joaten, basakeriek eragiten zioten arbuioa erakusteko eta, areago, basakeria haiek bere herriaren izenean egiten zirenik ukatzeko.

Orain bakea dugu: bakea –esan diote Andoniri– atentaturik ez gertatzea eta bizkartzainekin ibiltzen ziren zinegotziak haiek gabe ikusi ahal izatea da, familiarekin, igandeko bermuta eta txibierroak hartzen taberna bateko terrazan.

Agintari gehien eta hedabide askoren jardunbidea ikusita, ordea, ez dio giroari bakea iritsi denaren traza handirik hartzen; aitzitik, gerrarako aproposagoa iruditzen zaio hitzei zein ekintzei darien etsakeria. Izan ere, badirudi, armak isildu orduko, mendeku saltzaileek hartu dutela plazan bakea aldarrikatzen zutenen lekua, eginiko lana bixkarreko pare batekin eskertu ondoren.

Konturatzen ari da Andoni giza-eskubideen, bizikidetzaren edota adiskidetzaren aldeko jarduera babestu zuten eliz agintariek ere, nahiago dutela orain zigortzaileen gailentasun moralaz eta zigortuen damu eta konbertsio premiaz predikatzea.

Irudipena du Andonik azken urteetan goi estrategiaren nondik norakoa xedatu dutenek ez dutela nahi armen isiltze hutsetik harago doan bakerik, horrelakoak zapuztu egingo bailieke hain gustuko eta, zentzu askotan, onuragarri zaien gerra-giroa. *Bizikiletak udarako dira* filmaren amaierako esaldi etsitua datorkio gogora: *“Bakea ez, garaipena da iritsi zaiguna”*, laburbiltzen du



pertsonaia batek frankistek konkistatu berri duten Madrilén bizi den giroa. Ez da oso bestelakoa diskurtso ofizialak hitzetik hortzera darabilen garaile eta garaituen leloak adierazten duena.

Honekin guztiarekin nahastuxe eta deseroso dabil Andoni. Ez du egindakoagatik damurik –bere kontzientziari erantzun

baino ez zion egin eta, konbentzituta dago, armen isiltzerako bere aletxo jarri zuen–, baina ez du jada sentitzen xingola tiraderan gorde zueneko gogobetetasun hura. Eta, gorroto-saltzaile eta samin-tratularien saldoak hartutako plazan, faltan ditu giza-eskubideen, bizikidetzaren eta adiskidetzaren aldeko garai bateko mezulariak. ○

gu geu

Euskarak 365 egun! Ipini kartela!

Topaguneko euskara elkarteek “Euskarak 365 egun” ekimena martxan ipini dute; eskualdean Bizarra Lepoan, Berbots, Egizu, Ukberri.net eta UK-k bultzatzen dugu. Euskal Herri osora zabaldu gura genuke kanpaina bat baino gehiago izan gura duen ekimena, zeure etxeko leihotatik, ateetatik, hormetatik abiatuz! Horretarako UK honegaz batera **jaso duzun kartela** helarazten dizugu, **nongura ipintzeko**: izan leiho, ate, horma e.a. Gau eta egun euskaraz bizi gura dugulako, **365 egunez euskaraz, geu izateko euskararen herrian, noiznahi, nonahi, orain eta hemen!** Noizgura, edonon, edonoiz, nongura! Euskarak 365 egun! 365 eguneko bidaia proposatzen dizugu, euskarak bihotzetik ahorrako ibilbidea eginez, burutik mingainerako ibilaldia... Ikasteko, gozatzeko, bizitzeko!

Ekimenagaz bat egiten baduzu:

Ipin egizu zeure kartela edonon ikusgai!

Eta kartelagaz argazkia atera dezakezu (banaka zein taldean), eta bidali: egizugetxo@gmail.com

UK-ko lan-taldea



BERANGO, 2013KO AZAROA

Haizeak eroango ditu... / Udagoiena badoa aurrera. Hego haizearen zurrumbiltoa entzuten da hantzen, sasoi honetan iparrera aldatzen hasi dela. Mendi eta basoen gorri, laranja eta horiak laster desagertuko dira: adarretatik askatuz doaz hostoak eta haizeak eroango ditu, kulunka goxoan, auskalo nora! Hostoakaz batera eroango ditu, agian, beste gauza asko. Baina, arren, ez dezala eroan bizipoza, negu luzea argitzeko erregaia. Haizeak eroango ditu hosto marroi lehorrak, lotu bitez gorri eta laranja alaiak gure barruan. Eta pozik bizi gaitzen, dedio! ○ / Argazkia: Asier Mentxaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugul!

Zer deritzozu Espainiako gobernuak Erasmus-bekak kendu gura izanari?



Bilbo

Naiara Ugarte

> ikaslea

Erasmus-bekak ondo daude, baina nahiago nuke hemen ikasteko bekak mantentzea, hauek ere desagertzen ari baitira. Jende gehiagok izango badu ikasteko aukera Erasmusekoak kenduta, ez litzaidake txarto irudituko, baina diru hori ez bada sartzen hemengo beketara ez dauka zentzurik.



Hernani

Agustin Jara

> ikaslea

Ez ditut ondo ikusten ikasketetan egiten diren errekorreak, oso garrantzitsua iruditzen zaidalako arlo hau. Baina uste dut kontrol handiagoa eduki behar litzatekela Erasmusean joaten den jendearekin, esperientzia hau benetan aprobeitza dezala ikasteko eta ez parrandarako.



Iruñea

Irazu De Esteban

> ikaslea

Oso txarto iruditzen zait Wert egiten ari dena. Guztiok daukagu kanpora ikastera joateko eskubidea, esperientzia honek ahalmenak ematen dizkiolako ikasleari. Gaur egun ikasi ahal izateak dakarren kostu ekonomikoa handia ikusita, sumingarrria iruditzen zait egoera hau.



Lleida

Jordi Roquesens

> ikaslea

Lotsagarria dela use dut, gainera aurten atzera egin ez balu, kurtsoa hasita penagarria izango litzateke jendea Europan dagoenean abisatzea. Gainera Erasmus-beketan murrizketak egitea funtsezkoak direnean heziketarako, lekuz kanpoko neurria ikusten dut.




Mungia

Irati Diaz

> ikaslea

Aldatu behar ez den neurri bat iruditzen zait, ikasleak kanpora bidaltzean ikasketaz aparte beste gauza batzuk ere garatzen dituztelako. Joan den urtean Erasmus-beka batekin kanpora ikastera joan nintzen eta diru oso gutxi zen, ia norberak ordaindu behar du dena, diru horrekin ez duzu hegazkinerako ere!



Sopela

Idoia Martin

> soziologia-irakaslea

Uste dut ez dela inolako hautabide zuzena Erasmus-beka kentzea, hauei esker ikasleek kontaktu bat lortzen dutelako beste unibertsitate eta beste lurralde batzuetako gizarteakaz, haien espezialitateen ikasketetan hain garrantzitsua dena. Heziketa-sistemaren atzerapen nabarmena da. Hondamendia.



GETXOKO UDAL LEBURUTEGIA



ASIER MENTXAKA

Iraganez doa denbora* beti / NEGURI-AVANZADA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > nagusien monopolia



Sopela, 2013ko urria

Testua: **Peio Arondo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Dena ez denean ezer

Nagusien monopolian nahiz eta ez egon dadorik ezta billete txikirik bestelakoan agian berdina da araudian zenbat epe, zenbat txeke beti daude ordaintzeke eta lau etxe badaude nahiz eta egon inor gabe hotela jarri daiteke.

Munduaren desberdintzak kapitalaren eragin berekoikeriaren lagin garestitu ditu giltzak zailduz guztion bizitzak. Merkatu osoa kasik kontrolatzen dute gutxiak gizartean sortuz bi alde: jende asko etxe gabe eta etxe asko hutsik.

Bizilagunen islada, bakarzaleen eskola, gure lehenengo eskola, hezkuntzaren oinarria da gure etxea gu gara. Gure nahiak, gure grinak lau horma artean eginak heltzen dira izatera argazkia adibide da denak grisak ta berdinak.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz

irakurzaleen txokoa > Irati Jimenez



Aiztoa eta Arkatza aurkeztuko du Jimenezek

Irati Jimenez Uriarte (Mundaka, 1977) idazleak, aurten argitaratutako bere azken liburua *Aiztoa eta arkatza* aurkeztuko du azaroaren 28an Villamonteko kultur etxean arrastiko 19:30ean. Liburua Txalaparta argitaletxeak kaleratu du eta irudiak Antton Olariagak jarri ditu, hitzaurrea barriz, Harkaitz Canorena da. Hainbat idazlek idazteko orduan dituzten aholkuak batu ditu Irati Jimenezek

liburu honetan. Aurkezpenaren proposamena Uribe Kostako irakurzaleen txokotik dator, idazleagaz batera egiten duten literatura eta poesia hitzaldien programaren barruan. Bestalde, Mundakako idazleak Igartza sariaren akzesita eta Beterriko Liburua saria lortu zituen 2009an *Nora ez dakizun hori* lanagaz, eta Agustin Zubikarai nobela laburren saria 2006ko *Bat, bi, Manchester* eleberriarengatik. ◯

kameratoia > abenduaren 8an Durangon

Kameratoia IX. edizioa heldu da Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta. Oraingoan, ikus-entzuneke Rally honek Durangoko Azokako Irudienea aretoa izango du agertoki nagusi. Abenduaren 6an parte-hartzaileek aurkeztu beharreko gaia eta islatu beharreko irudien zerrenda jasoko dute eta momentu horretatik 48 orduko epea izango dute hiru eta zortzi minutu bitarteko film labur baten gidoia

osatu eta grabazio eta edizio-lanak burutzeko. Abenduaren 8an, bideoak aurkeztuko dituzte Durangoko Irudienea aretoan, eta orduan hasiko da epaimahaiaren lana. Hiru sari emango dituzte, 1.200, 900 eta 600 eurokoak. 18 eta 35 urte bitarteko gazte euskaldunek parte hartu ahal izango dute, beti ere azaroaren 22a baino lehenago izena emonez. ◯

Info+: info@kameratoia.com



Lehiaren oinarriak: www.kameratoia.com



Izen-emotea zabalik hilaren 19a arte

topaketa > sexu eta ugalketa eskubideak

“Sexu eta ugalketa eskubideetan fundamentalismo politiko, ekonomiko, erlijioso eta kulturalak duten inpaktua” topaketa izango da Donostian azaroaren 28an eta 29an. Hiru eremu landuko dira: Globalizazioa eta neoliberalismoa, eragina emakumeen gorputz eta sexualitatean; laiktasuna eta erlijio-fundamentalismoak eta indarkeria matxisten adierazpenak. Aukera parebakoa fundamentalismoek

sexu eta ugalketa alorreko eskubideen urraketan duten zerikusia aztertzeke. Antolatzaileak medicusmundi Gipuzkoa eta Manuela Ramos Mugimendua dira eta programa osoa jaso edo doan egin daiteke. Parte hartu gura dutenek izena emoteko 943 404 740 telefono zenbakira dei dezakete, edo mezua bidali beheko helbide elektronikora. ◯

Info+: educ.gipuzkoa@medicusmundi.es

Binilo apaingarria

Diseinatu zure lekua biniloarekin apainduz

Biniloaren tamaina: 43 x 58 zm
6 eredu ezberdin
Espatula dohainik

Eredu gehiago ikusteko, gure binilo katalogoa eskatu

19,90€
BAKARRIK
BEZ BARNE

cianoplan
global printers
applications + business

Villa de Plentzia, 6
GETXO
Gobela metro
geltokiaren ondoan

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa

...harria ...lehenago garaiak... ...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

EUSKAL KULTURAREN XV. JARDUNALDIAK

azaroaren 19tik abenduaren 4ra arte del 19 de noviembre al 4 de diciembre

XV Jornadas de la Cultura Vasca

www.getxo.net/euskara



"Inauterietan beti mozarrotzen gara: bikingoz, indioz... Jendeak herrian parte hartzea gura dugu!"

Manu Cueto eta Itzi Zarraga > Neba-arrebak tabernakoak

Berangoztar belaunaldi askoren topagunea izan da urte askoan Neba-arrebak betiko taberna. 30 urte bete barri dituen taberna honen hormek Berangoko hamaika istorio eta pasadizo gordetzen dituzte. Horren lekuko izan da Manu Cueto zerbitzaria, 24 urte daroa-eta Neban beharrean: "Aldez aurretik Algortako Etorri tabernan zerbitzari izan nintzen. Jende zepo zegoen beti! Litro biko garagardoak edaten ziren kristalezko katxietan, batik bat Vollldamm!". Industria-elektronikoa ikasi zuen arren, azkenean ostalaritza bihurtu zen bere ogibidea. Neba-arrebak-eko lehenengo urteak nostalgiaz gogoratzen ditu: "Lehen beste giro bat zegoen: koadrila pilo bat, kartetan, abesten... Gauetan argi arruntak amatatu, argi gorriak piztu eta musika aldatzen genuen... komunek hitz-egiterik balute!". Gaur egun ere giro ederra izan ohi da, inauterietan adibidez: "Gu beti mozarrotzen gara: bikingoz, indioz... Jendeak herrian parte hartzea gura dugu!". Krisiak, baina, eragina izan du negozioan. Gainera, uztailaren 12an uholdeak izan zituzten tabernan: "Sei orduz ura jausten izan genuen goiko solairutik. Dena urez beteta zegoen". Horren eraginez, taberna hiru hilabetez itxita egon da: "Zaharbarritu behar izan dugu". Baina Neba-arrebak-ek gogotsu zabaldu ditu atek ostabere: itxura barriagaz, eta betiko zerbitzari jatorrakaz! ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

Euskal Kulturaren Jardunaldiak

XV. ekitaldirako Udalak eta hainbat **elkartek** antolatu **dituzte**, besteak beste: **Euskara Saria**, **ArgIHizkiak** erakusketa, **jai mitologikoa**, **berbaldiak** eta **jarduerak** gazte eta **sendientzat**

Abenduak 3, Euskararen Egunaren harira antolatu ohi dituzte Euskal Kulturaren Jardunaldiak Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta herriko hainbat elkartek. Aurtengoa XV. edizioa izango da, eta hainbat jarduera garatuko dituzte azaroaren 19tik abenduaren akabura bitartean.

Zergatik ez euskaraz? gurasoentzako tailerrak abiatu ditu Euskal Kulturaren Jardunaldiak, Sendik antolatuta. Elkartek, gainera, beste ekimen batzuk prestatu ditu Jardunaldiotarako. Batetik, Jai mitologikoa egingo du, Kukupraka ludotekagaz batera, azaroaren 22an: Areetako eskoletako plazan izango da, 17:30etik 19:30era. Bestetik, sendientzako ekintzak egingo ditu hurrengo astean: azaroaren 26an, platanozko kruxpetak prestatuko dituzte Algortako Bidebitarte txokoa 18:00etatik aurrera eta, hilaren 30ean, txangoa egingo dute Arditurri parketxera, Gipuzkoara.

Jardunaldien baitan emongo du Udalak Argia Ereiten Euskara Saria, azaroaren 28an. Biscaytik Areetako Bake Eder Ezagutza Zentroan egingo dute ekitaldia, 20:00etan (Zugatzarte etorbidea, 32). Egun horretan, gainera, beste hainbat ekimen izango dira. Batetik, Irati Jimenez idazleagaz solasaldia antolatu du Egizuk Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren baitan, Algortako kultur etxean eta 19:30ean. Bestetik, Laurita Siles artistaren erakusketa inauguratuko dute 20:00etan Algortako Abian elkartearen: *Gogoko tokian aldaparik ez! 20 esaera zahar*. Abenduaren



Berbodromoa egingo da abenduaren 2an Areetako Elkartegian, goiz eta arrastiz

23ra arte ikus daitezke bere irudiak.

Azaroaren 30ean, bestalde, Nazioarteko Trikitixa Jaialdia ospatuko da Areetako Andres Isasi musika-eskolan; kontzertua 19:00etan hasiko da. Eta bihar-munean, abenduaren 1ean, Pello Añor-

“Bizarra Lepoan elkartean bulegoan eros daiteke Euskaraz bizi nahi dut leloa daroan materiala”

gak umeentzako ipuinak kontatuko ditu Algortako kultur etxean, 12:30ean; Bizarra Lepoan elkartek antolatu du.

Abenduaren 2rako, barriz, Egizuk Berbodromoa antolatu du, eta lau txanda izango dira (09:00, 11:00, 17:00 eta 19:00); Areetako Elkartegian egingo da eta izena emon behar da azaroaren 29a

baino lehen: egizugetxo@gmail.com. Berbodromoaren egun berean, gainera, ArgIHizkiak literatura-lehiaketaren erakusketa inauguratuko da: Egizuk eta UK antolatu dugu, eta Algortako kultur etxean ikusi ahalko da urte akabura arte.

Abenduaren 4an, Argentinako euskararen eta euskaldunen barri emongo du Magdalena Mignaburuk. Itxartuk antolatu du hitzaldia eta hori ere Algortako kultur etxean izango da, 19:30ean. Gainera, abenduaren 8an dantza-kalejira egingo du Itxartuk Algortako kaleetan. Azkenik, esatea Gaztelekuan hainbat ekintza garatuko dituztela hil osoan zehar. Eta, azkenik, Bizarra Lepoan elkartean bulegoan eros daitezke kamisetak, pinak eta banderoak *Euskaraz bizi nahi dut* leloagaz. ○

Info+: www.getxo.net

Artisau-lana ikusi eta bizi

Eskulangitza Azoka hilaren 29tik abenduaren 1era



Areetako Geltokia plazako karpan ipiniko dituzte postuak

Artisautzaren erakusleho bihurtuko da Areetako azaroaren 29tik abenduaren 1era, XXX. Eskulangitza Azokagaz. Geltokia plazako karpapean kokatuko dira 72 postu, askotariko artisau produktugaz. Baina aurtan, gainera, ehungintzari buruzko jarduera-programa zabala eskainiko du Azokak, bai ikuslegoarentzat, bai sektoreko profesionalentzat: hitzaldiak, tailerrak, ludoteka, proiektzioak, e.a. Azoka eta beselako ekintzak, doakoak dira danak.

Azaroaren 29an, barikuan, tinteei buruz jardungo dira hainbat ekintzatan: besteak beste, Nuna Conesa, Soledad Santisteban eta Lala de Diosen hitzaldiak, latxa artileari buruzko mahainguru-solasaldia edota tinte naturalei buruzko proiektzioa. Zapatuan, hilaren 30ean, barriz, Lala de Dios XXI. mendeko ehun-

artisautzari buruz mintzatuko da, Euskal Herriko ehungintzari buruzko mahainguru-egingo dute, eta Oaxacako (Mexiko) ehungintza tradizionalari eta Txipreko *lefkara* bordatuari buruzko bideoak proiektatuko dituzte.

Domekan, azkenik, ehun-gozogintzari buruzko tailerra, eta Japon zein Koreako ehungintzari buruzko proiektzioak izango dira, baita irule eta ehuleen bilkura ere. Gainera, Azokak iraun bitartean Nuna Conesaren *Latxa+seda=nuna* erakusketa ikusi ahalko da. Gogoratzea stand eta diseinu lehiaketak ere egingo dituztela, eta erosleentzako hainbat produktu zozketatuko dutela. Azoka zabalduko dute 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara (zapatuan 21:30 arte). ○

Info+: www.getxo.net

AZAROAREN 25EAN HAINBAT EKINTZA

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna dela-eta hainbat ekintza garatuko dira Getxon. Algortako Bilgune Feministak Domeka Lila zine-forum berezia egingo du azaroaren 24an, domekan; izan ere, urtebete du zine-forum feministak. Arrastiko 18:00etan izango da, Abian elkartearen, *Monster* filmari buruz. Bestalde, liburutegietako maileguakaz batera orri-markatzailea oparituko dute puntu lilagaz eta emakumeen arretarako telefonoagaz; Herriarren Arretarako Bulegoetan ere jaso ahalko dira puntu lilak, norberak etxeko leihoan ipintzeko. Gainera, Romoko Gizatiar elkartek kontzentrazioa deitu du azaroaren 28rako, 19:30ean, Areetako Bizkaiko Zubiko plazan.

MUNDU MAILAKO PROBA IZANGO DA PUNTA GALEA CHALLENGE

Big Wave World Tour (BWWT) olatu handien munduko zirkuituaren surf-proba izango da lehenengoz Punta Galea Challenge, aurtan Europako bakarra. Martxoaren 31 baino lehen egingo da eta 24 surflarik parte hartuko dute, sei euskaldun tarteko. Urtero legez, hiru egun lehenago deituko dute proba, eguraldiaren baldintza onak eta olatu-tamaina egokia gertatzen direnean.

Info+: www.3sesenta.tv

150.000 EURO GIZARTE-LAGUNTZETARAKO

Udalak 150.000 euroko gastua onartu du Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ordaintzeko, “herriarren eskaerei erantzuna ematen segitzeko helburuagaz”. Udaletik azaldu dutenez, orain arte Eusko Jaurlaritzak emandako 498.000 euroetatik 495.000 euro banatu ditu 408 eskarien artean eta, orain onartutakoagaz, erantzuna emongo die “*gastu arrunt eta ezohikoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen, gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko edo saihesteko*”.

Info+: www.getxo.net



Kalitatea eta moda prezio paregabeetan

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57

Fernando de Soignie > Getxoko auto-zinema

“Auto-zinema aisi-aukera izango da eguraldi txarra dagoenerako ere”



Gabonetan inauguratuko dute zinema, Grease filmagaz

Oroitzen duzu Grease filmeko zinema? Autoagaz zihozen gazteak zelai handi batera eta bertatik ikusten zituzten filmak, kalean, pantaila erraldoi batean. Badirudi atzerriko kontua dela, aspaldikoa, baina adi! Getxon autoentzako zinema zabalduko dute Gabonetan eta, hain zuzen ere, Grease pelikulagaz estreinatuko dute. Fernando de Soignie eta Javier Castaños algortarren egitasmoa da eta Berangora bidean ipiniko dute, gasolindegitik gertu. Lursailak 150 autorentzako tokia izango du eta horietako bakoitzak 10 euro ordaindu behar du sarrera.

—A zer ideia, autoentzako zinema bat egitea! Zelan otu zitzaizuen?

—Xixonen ikusi nuen horrelako bat: askotan joaten naiz Asturiasera, aita hangoa delako. Eta arrakasta handia dauka, askotariko jendea doa eta beti dago lepo. Han ere antzeko klima daukate eta daborduko 20 urte dira zabalduta zutela: esan daiteke nolabait merkatu-ikerketak egin dutela. Langabezia gaude eta lanari ekiteko aukera da.

—Gabonetan zabalduko duzue, ez da arriskutsua eguraldia dela-eta?

—Ez, nik uste eguraldi txarra dagoenerako ere aisi-aukera bat dela. Eguraldi ona dagoenean hamaika plan edo aukera dago hemen: portura joan zaitezke, txirrindulaz ibiltzera, paseo bat egitera, e.a. Baina txarra egiten duenean ez dago aukera askorik, eta daudenak ez dira merkeak: azken batean, ohiko zinema aukera bat da, baina oso garestia da.

—Eta zuen zinema, garesti izango da?

—Auto bakoitzak 10 euro ordainduko du, bardin pertsona bakarra edo bost jogan; beraz, bost lagun badoaz bakoitzak

euro 2 besterik ez du ordainduko. Gaur egun, hiru seme-alabadun familientzat ia pentsazina da ohiko zinemara joatea; sarrerak, krispetak... dirutza utziko du ordu pare batean. Alokairu oso altuak ordaindu behar dituzte, areto asko daukate-

«Autobus bat egokituko dugu filmak taldean erosoago ikusteko»

lako. Gure zinema, egia esan askoz merkeagoa da. Gainera, dana pentsatuta daukagu: euria eginez gero, autoko aurreko leihoan, haizetakoan, bentosakaz finkatzen diren biserak ditugu, haizetako-garbigailua erabili behar barik filma ondo ikusi ahal izateko. Soinua irratia bidez sintonizatuko da. Retro gauzetara bueltatzea da, baina gaurko sistemakaz.

—Baina atzeko eserlekuan doazenean ondo ikusiko dute pantaila?

—Hirurentzat perfektua da ikuspegia baina, lagun gehiago joanez gero ez da arazorik egongo: autobus bat egokituko dugu, gura izanez gero, filmak taldean erosoago ikusteko, eta eserlekuak leihotara zuzenduta edukiko ditu. Gainera, krispetak eta saltxitxa-ogitartekoak erosi ahal dira arrazoizko prezioan.

—Grease filmagaz estreinatuko duzue zinema, klasiko batez.

—Azken batean, autoentzako zinema aipatzean danoi datorkigu burura Grease; hori ere izan dugu inspirazio-iturri eta omenaldi modukoa da. Gerora estreinaldiak proiektatuko ditugu, beste zinemek moduan, baina klasikoren bat emotea ere pentsatu dugu. Egunero zabalduko dugu eta emanaldi bi izango dira: bata umeei zuzendutakoa, bestea helduei; haurtxoak ere joatea daukazu, negar eginez gero ez duzu-eta inor gogaituko. ○

XV. Mendi-Astea Faduran

Itxas-Argiaren Mendi-Astea azaroaren 21era arte luzatuko da **lau hitzaldigaz**



Unai Ursuak azaroaren 21ean hitz egingo du Alpeetako Laffaille del Petit Drun mendi-igoerari buruz

Abiatu da Itxas-Argia Mendi Taldearen XV. Mendi-Astea, non eta Fadura kiroldegiko areto nagusian. Lau hitzaldi eskainiko dituzte azaroaren 21era bitartean. Lehena izan da 18an eta Arantza Lazurtegik jardun du Simien mendietatik egindako ibilbideari buruz (Etiopian).

Azaroaren 19an, barriz, Manu Cordovak Patagoniari buruzko ikuspegiak eskainiko ditu: garai bitan burututako bidaiak “oso aldakorak” erakutsiko ditu bideo batean. Biharamunean, hilaren 20an eguaztenean, Oriol Baroren txanda izango da eta berak Huarazen (Andeetan) igoerako deboraldi bi kontatuko ditu:

2007 eta 2011 igaro zituen Blanca eta Huayhuash mendilerroetan, eta dienez, esperientzia emankorrak izan ziren biak.

Azkenik eta Mendi-Astea amaitzeko, azaroaren 21ean, Unai Ursuak hitz egingo du Laffaille del Petit Drun egindako neguko eskaladari buruz: Alpeetako mendi mitikoan 13 egunetan izandako bizipenak adierazten saiatuko da, eguraldi txarrenean ere eskalatu zuen-eta bide hori.

Aipatu bezala, hitzaldiak Fadura-kiroldegiko areto nagusian izango dira (Makaleta etorbidea, z/g), urtero legez, eta danak hasiko dira 19:30ean. ○

Info+: www.itxas-argia.com

PINTXO-POTEA ABIATU DUTE ALGORTAN

Algortako Amezti eta Mariandresena kaleen arteko hainbat tabernak hainbat ekimen abiatu dituzte, astez zonaldeari bizitza emon guran. Batetik, Pintxo-Potea izango da eguenero, 19:00etatik 22:00etara, eta 2 euroren truke. Gainera, barikuetan 20:00etatik 23:00etara, edari bakoitzeko pintxo doan izango da. Azkenik, zapatuetan musika-emanaldiak egingo dituzte giroa animatzeko.

KOMIKI-AZOKA ARETAN AZAROAREN 22TIK 24RA

Getxoko XII. Komiki-Azoka azaroaren 22an, 23an eta 24an egingo da, UK-ko aurreko zenbakian aurreratu legez. Azokak erakusketa-eremua, tailerrak, ekitaldi-aretoa izango ditu, eta argitaletxe, saltoki, erakunde, fanzine eta komikiaren munduagaz lotutako edozein sektoreentzako merkataritza-esparruak bilduko ditu. Gainera, hainbat erakusketa ipini dituzte Bizkaiko Zubian, Glass eta Jai Alai tabernetan, Algortako Torre-aretoan eta kultur etxean. Gogoratzeko Luis Gasca eta Juan Lopez JAN omenduko dituztela Azokaren ekimenen barruan.

Info+: www.salondelcomicedgetxo.net/eus

ERRUMANIARI BURUZKO JARDUNALDIK AURRERA

Badoaz aurrera *Munduko paisaiak: liburutegiak topaleku* jardunaldiak, aurretik Errumaniari buruzkoak. Liburutegiak eta Immigrazio Unitateak antolatuta dituzte, etorkin liburutegiak erabiltzera animatzeko eta Getxoko etorkin kulturak ezagutarazteko bertokoen artean. Oraindin ikus daitezke erakusketa bi: bata emakume ijitoei buruz (Algortako merkaturan), bestea errumaniar komikigintzari buruz (Algortako kultur etxean). Gainera, azaroaren 21ean Errumaniako sukaldaritzari buruzko ikastaroa egingo dute Fadurako Ostalaritza-Eskolan, eta 27an *Una parte de mi* liburua aurkeztuko du Loredana Vanceak Algortako kultur etxean, 19:00etan.

Info+: www.getxo.net

lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Haizea Hormaetxea Llanos > dantzaria

“Dantza sentimendua da, trikitixaren lehen notak entzun eta barnetik sua pizten da”

XXXVII. Euskal Herriko Dantza Txapelketa irabazi du Haizea Hormaetxea Llanos leioztarrak, Lander Campos santurtziarragaz batera. Hamabost bat urte daroa Hormaetxeak txapelketan parte hartzen eta hiru bikotekide desberdineguz dantzatu du; azkenean, Camposegaz batera irabazi du. Zorionak, Haizea!

—Laugarren saiakeran lortu duzue irabaztea, baina askotan parte hartu duzue? —Landerregaz laugarren aldia izan da. Nik 15 edo 16 urte daroat txapelketa horretan eta hiru bikote izan ditut; Lander da hirugarrena eta berarekin lortu dut garaipena. Ez genuen espero: duela bi urte hanka sartze handia egin genuen, iaz bai espero genuen zer edo zer lortzea eta laugarren gelditu ginen, beraz beldurrez joan gara apur bat. Bagenekien lehenengoan artean gera gintezkeela, baina irabaztea urrun ikusten genuen, areago horrenbeste gipuzkoarren artean. Denboraldi oso polita izan da eta txapela asko eta onak lortu ditugu. Lan handia da, baina honek ere indarra emon digu aurrera jarraitzeko. —Esaten zenuen normalean gipuzkoar dantzatzeko modua gailentzen dela, zaila dela bizkaitarrek irabaztea.



Seguran jokatu zen txapelketa urriaren 19an

—Beti da albiste bizkaitarrek irabaztea. Azkenean, koreografia eta pausoak gipuzkoar erara moldatu behar izan ditugu apurtxu bet, igual Bizkaiko jotarekin ez geneukalako hainbeste aukera. Estiloa baikoitzak dauka berea, baina aurren musikaren erritmoa azkarragoa izan da eta horrek gure alde egin du, erritmo biziagoetara ohituta gaude-eta. Gainera, orain epai-leek arreta edo garrantzia gehiago emoten diote gorputzaren espresioari: naturaltasu-

nari. Duela urte batzuk igual makinak emoten genuen dantzan, orain naturalago bihurtzen ari gara: transmititzen dugu zer edo zer dantzatzekoan.

—Eta zuei zer ematen dizue dantzak? —Sentimendua da eta berau transmititzen dugu dantzatzean. Ikusleek esaten digute erakusten dugula konplizitatea, elektrizitatea, naturaltasuna eta alaitasuna. Trikitixaren lehen notak entzun eta barnetik sua pizten da. ○

Lehen aldia antzerkian

Antzezlan bi izango dira **umeentzako**

Antzerki Zikloan, **azaroaren 23an eta 24an**



Que si que no italiar obra ikusi ahalko da azaroaren 23an

Inoiz ez da goizegi antzerkiaren eta musikaren munduetan murgiltzeko eta haren xarmaz bustitzeko. Horren lekuko da urtero Kultur Leioan egiten duten ekimena: *Lehen aldia*, umeentzako arte eszenikoen zikloa. Zehazki, urtebete eta hiru urte bitarteko umei zuzenduta dago eta Ambigun izango dira emanaldiak. Aurren ikuskizun bi izango da, bata antzerkia, bestea kontzertua.

Azaroaren 23an, zapatuan, *Que si que no* lana antzetzeko du Italiako Drammatico Vegetale-Ravenna Teatro taldeak. Egile eta aktore da Pietro Fenati, eta taula gainean lagun izango du Elvira Mascanzoni. “*Paper bat zikitzen duen kolorea, hanean bilatzen duen eskua, lurrera eror-*

tzen den egur zatia... eta hitz gutxi. Umeak begiratzen du, entzuten du, bere inguruan dagoen guztia ukitzen du eta aukera arruntak eginez, mundua aurkitu eta interpretatzen du, hazten den bitartean”.

Bestalde, azaroaren 24an izango da kontzertua: Teatro Paraisok eskainiko du *Kulunka*. Zuzendaria da Charlotte Fallon eta musikariak Laura Marcos (oboea), Koldo Uriarte (teklatura) eta Sergio Lopez (perkusioa). Asmoa da umeen “*interesa, emozioa eta entzuteko gaitasuna piztea*”. Lan biak bitan egingo dituzte, saio bat eguerdiko 12:30ean, bestea 18:00etan. Eta sarrera 5 eurokoa da. ○

Info+: www.kulunkateatro.com eta www.drammaticovegetale.com

AZAROAREN 25EAN MOBILIZAZIOA

Kontzentrazioa deitu dute azaroaren 25erako, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean. Bilgune Feministak eta Andrak taldeek deitu dute, eta 19:30ean izango da Bulebarren. Gainera, Bilgune Feministak beste ekimen bi antolatu ditu: azaroaren 21ean, film laburren emanaldia, 19:30ean Sakonetan; 28an, barriz, hitzaldia abortatzeko eskubideari buruz, ordu eta toki berean.

PINOSOLO DELA-ETA DEKLARATZEKO ESKATU DIOTE ARRUABARRENARI

Udaleko Osoko Bilkurak erabaki du ez dituela gonbidatuko lehiaketa publikoetara Pinosolo kiroledegia afera nahastutako enpresak, behintzat ikerketak amaitu eta epaitegiek behin-betiko erabakiak hartu arte. Bestalde, EH Bilduk gutuna eroin Eneko Arruabarrena alkate ohiari, Pinosolo auziko ikerketa-batzordean azalpenak eman ditzan eskatzeko. Udalak sortu zuen batzordea kiroledegia esleipenean atzeman irregularitasunei buruzko ardurak argitzeko. Koalizioko udal-ordezkariek ohartarazi dute “*EAJ siltasunaren legea ezarri nahian ari dela*”, baina ez dutela “*halakorik onartuko*”.

Info+: www.ehbildu.net

LANKIDETZARAKO HITZARMENA EHU-GAZ

Euskal Herriko Unibertsitateagaz lankidetzaz hitzarmena sinatu du Udalak, “*etorkizunean edozein arlotako proiektuak garatzea ahalbidetuko duena*”: hezkuntza, garraioa, unibertsitate ingurua egokitzea eta definitzea, zerbitzuak emotea, kultur egitaraua, euskararen erabilera eta ekintzailatza sustatzea. Besteak beste, tranbia eraikitzea bultzatuko dute, metro geltokia eta unibertsitate-kanpua lotzeko. Leioako alkateak irailan iragarri zuen Eusko Jaurlaritzak 2014an berrartu gura dituela tranbiaren lanak.

Info+: www.leioa.net

MR TALLER MECANICO

Coches, Motores Marinos y Fuerabordas

Mota guztietako konponketak: Azterketak, Gurpilak, Indargetzaleak, Solinua...

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9
48993 GETXO



BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com



Luberr Basolanak, SL
Axe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarrizte lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarriztea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Oskar Estanga Ezkurdia > bertsolaria eta musikaria

“Musikak eragiten du bertsoa errazago jasotzea, joko asko ematen du eta oso dibertigarria da”

Munduko musika-doinuakaz bertsotan arituko dira Oskar Estanga eta Etxahun Lekue azaroaren 29an, Altzagako erakusketa-gelan. Berbots taldeak antolatu duen saioan Estangak gitarra ere joko du, bertsoak bat-batean botatzeagaz batera.

—Bertsolari bi aritzen zarete saio hauetan, zelakoak dira?

—Aspaldi hasi nintzen bertsotan eta musikan, beraz niretzat gauza naturala zen musika eta bertsoak uztartzea, aspaldi eramaten dut gitarra bertso-saiotara: modu berezia da inprobisatzeko. Horrela, azkenean munduko doinuak hartu nituen. Beno, batzuk hemengoak dira, baina munduko estilora egokituak. Badago tangoa, saltsa, rock-and-rolla, e.a. Horrela, ordenagailu bidez grabatu nituen musika-oinarri batzuk eta horiei gehitzen diet zuzeneko gitarra. Gero, bi bertsolarik inprobisatzen dugu horien gainean.

—Gauza biak egiten dituzu batera?

—Nahiko natural bihurtu da; beno, egia esan, gitarrarekin ez dut filigrana gehiegirik egiten bat-batean kantatu bitartean, baina musikan laguntza egitea edo musikari jarraitzea niretzat erraza da. Azkenean, kantari batek kantatu eta jo egiten du-elako batera. Bertsotan pentsatu behar



Argazkilaria: Alberto Elozegi. Iturria: Xepelak dokumentazio zentroa

dudanean, gitarrarekin zer egiten dudanez dut pentsatu beharrik; gitarra doa hantxak doazen bezala. Bestalde, bikotekidez aldatuz noa: musikarekin aritzen diren bertsolariak daude. Tamalez, bertsolari denak ezin dira aritu formatu honetan, eskatzen duelako musikaren erritmoan jarraitu behar izatea kantua, eta musikan trebatua izatea. Hainbat bertsolariri proposatu nien parte-hartzea, denek ezin dutelako joan bertso-saio guztietara, eta aparte, kolore desberdinak edukitzeko;

Euskal Herriko toki desberdinetakoek parte hartzen dute. Erandiora etorriko da Etxahun Lekue, baina irekia dago pertsona gehiagok parte ahal izateko.

—Ikusleek eskertzen dute?

—Bai. Bertsolariorik kritikatzeko zaigu musika aldetik ez garelako oso... Beraz, hain bertsozale ez direnentzat agian musikaren zatia falta zen. Musikak eragiten du bertsoa errazago jasotzea; bertsoa aurkezteko modua desberdina da, joko asko ematen du eta oso dibertigarria da. o

Urte bi Kalezulon

Bigarren urteurrena ospatu du **Erandioko gaztetxeak** azaroaren **20tik 23ra**



Zapatua, azaroaren 23a, egun handia izango da, bazkariagaz eta kontzertuakaz

Kalezulo gaztetxeak urte bi bete ditu eta Erandioko gazteek urteurrena ospatuko dute aste honetan, azaroaren 20tik 23ra: egunero antolatu dituzte ekintzak.

Eguaztenean, hilaren 20an, Salhaketa-taldeak hitzaldia emongo du: *Zer egin atxilotzen bazaituzte*; amaitutakoan mokadutxoak jateko aukera izango da. Gaztetxean bertan izango da, 19:30ean. Hurrengo egunerako, azaroaren 21erako, hainbat jarduera prestatu dituzte: egun osoan zehar ikusi ahal da okupazio-esperientziei buruzko argazki-erakusketa. Gainera, 19:00etan mahaingurua egingo dute herri okupatu, gaztetxe edota ortu

okupatu buruzko esperientziak azaltzeko. Amaitutakoan, Meren abeslariaren emanaldia izango da, 21:00 aldera; arrasti osoan egongo dira musika eta pintxoak.

Barikuan, azaroaren 22an, *“autogestio-tailerrak”* egingo dituzte Irailaren 23a plazan: arrastiko 17:30etik aurrera. Baina zapatua izango da egun handia. Eguerdiko 11:00etan, azoka egingo dute Irailaren 23a plazan eta gaztetxea kalera aterako dute (gaztetxe taldeen erakusketa eta tailerrak); 15:00etan bazkaria egingo dute, 18:00etan gazte-bertso-jolas-poteoa eta 21:00etan ekitaldia eta kontzertuak: Mandoilek, 3gabe2 eta herriko DJ-ak. o

BERBODROMOA ABENDUAREN 3AN

Euskararen Egunerako, abenduaren 3rako, Berbodromoa antolatu dute, beste behin ere, Altzagako azoka zaharrea Berbots Erandion Euskaraz taldeak eta Erandioko Euskara Zerbitzuak: asmoa da parte-hartzaileek hainbat gai buruz euskaraz jardutea, taldeka. Goiz eta arrastiz saio bana egingo dute: bata 09:30ean, bestea 18:30ean. Esatea parte-hartzaile guztientzat prestatuko dutela txokolatea eta bizkotxoak. Beraz, aitzakiarik ez duzu kale egiteko: erdu euskarara!

Info+: berbots.blogspot.com

AZAROAREN 25EAN KALERA!

Hil osoan garatu dituzte ekimenak Erandion Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna dela-eta: Beldur Barik lehiaketa, komikigintza-ikastaroa, e.a. Baina oraindik ez dira amaitu. Azaroaren 25ean kontzentrazioa deitu dute Irailaren 23a plazan (udaletxe aurrean), 12:00etan. Arrastirako, barriz, jarduera bi prestatu dituzte: Batetik, Erandiogoko kultur etxean zineforuma antolatu du Damatxo elkarteak eta *Tomates verdes fritos* filma emongo du, 18:30ean; bestetik, Altzagako azoka zaharrea Tirante Plataformak *La maquina del dueño* antzetzuko du, 20:00etan. Azaroaren 25eko ekimenak amaitzeko, hilaren 30ean murala margotuko dute Astrabuduan.

Info+: www.erandio.net

KONTZERTUA SANTA ZEZILIA EGUNEZ

Azaroaren 22an ospatzen da Santa Zezilia Eguna, aurten domekan. Musikaren saindua da Zezilia eta, beraz, aurten ere kontzertua egingo dute Altzagako azoka zaharrea. Oraingoan parte hartuko dute Altzaga abesbatzak, Erandioko musika-bandak eta Mendibaiarte abesbatzak. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera doakoa izango da.

Info+: www.erandio.net



adi lagun!

Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!

uk@aldizkaria.biz

*(sinatuta eta gehienez 330 berba)



Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

AZAROAREN 25AGAZ, HAMAIIKA ALDARRI

Sopelan ere, hamaika ekimen antolatu dituzte Emakumeen Aurkako Indarkeriaren kontrako Egunaren harira: hilaren 22an, barikua, 20:00etan, kale-ekintza izango da Udaletxe-plazan; ostean Olaia Aretxabaletaren kontzertua izango da. Azaroaren 23an, barriz, Itzartuk autodefentsa feminista lantzeko tailerra antolatu du Kurtzio kultur etxean, izen-emotea elkartearen egoitzan. Azaroaren 25ean, ostera, Udaletxe-plazan kontzentrazioa (19:00) eta adierazpenaren irakurketa izango dira.

EUSKARAREN ASTEA HILAREN 29TIK KURTZION

Euskararen Egunaren ingurumarietan, Euskararen Astea antolatu dute: hilaren 29an (21:00) Korrontziren kontzertua izango da; hilaren 30ean (20:00) *Bidaia magikoa* antzezlan; hurrengo egunean, *Hansel eta Gretel txokolatetzko etxean* filma izango da ikusgai 18:00etan; abenduaren 3an, Euskararen Egunean, *Gabrielen lekua* ikuskizuna 19:00etan; eta asteagaz amaitzeko, abenduaren 5ean Uxue Alberdigaz literatur-solasaldia *Euli -giro* lanaz, 19:00etan.

PALA-JAIALDIA AZAROAK 30-ABENDUAK 1

Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean palajaialdi erakargarria izango da Sopelan. Asteburu horretan udal pilotalekuan jokatuko dira Banakako motzaren eta emakumezkoen gomazko paletaren Fundacion Basque-GMGZko II. Zirkuituaren bosgarren eta azken proba. Hala, Sopelan jokatu diren probetan irabazleak aukeratu dira. Azaroaren 30ean, zapatuan, eta 16:00etatik aurrera, banakako pala motzaren final-zortzirenak jokatu dira. Zortzi partidetan zaleen mailako pelotari onenek parte hartuko dute. Domekan, ostera, goizeko 09:30etik aurrera, emakumezkoen finalerdiak jokatu dira. Bertan, Euskal Herriko jokalaririk onenek parte hartuko dute. Ondoren, 11:15ean banakako pala motzaren finalerdiak jokatu dira, eta 12:30ean, azkenik, emakumezkoen finala.

Sopeloztarren ahotsa

Asanbladak egin dira Sopelako auzoetan aurrekontu parte-hartzaileak osatzeko



Auzokideek ekarpen ugari egin zituzten, euren auzo eta herria hobetzeko asmoz

Datorren urteko aurrekontuak osatzeko sopeloztarren parte-hartzea eskatu du Udalak; hala, azaroaren lehen astean, 5etik 8ra, hain zuzen ere, Sopelako auzoetan asanblada irekiak izan dira auzokideen ekarpenak jasotzeko. Azaroaren 5ean, Arriateran hainbat iritzi jaso ziren, besteak beste: Barinatxeko umeentzako jolastoki barriaren segurtasuna hobetzeko konponketa batzuz egiteko eskaera, markesina bat auzoan jartzea lehenetsi zuten auzokideek baita Sopelbusaren maiztasuna handitzea arrastiko azken ordua arte, edo Areta eta Armintza lo-

tzen dituen autobusa Arriateraraino jaitzea ere bai. Sopelmarren, barriz, beste batzuen artean, Atxabiribil kalea bizikletentzat egokitzeko aukeraz berba egin zuten, auzoan umeentzako jolas barriak eraikitzeak aukera ere aipatu zuten, gainera, hondartzari erabilera handiagoa emotea proposatu zuten. Azaroaren 7an, ostera, Larrabasterran egindako asanbladan, besteak beste, komun publikoak jartzeko eskaria egin zuten auzokideek, baita diru-laguntzak ateratzen direnean bandoak egiteko eskaria ere egin zuten bertaratuak. ○

Olaia Aretxabaleta > abeslaria

“Batzuetan nahi gabe, baina, nire abestietan genero ikuspegia ageri da”



Aretxabaletak Sum lana kaleratu zuen Beldur Barik lehiaketa irabazi ostean

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako ekitaldien artean, Olaia Aretxabaletak kontzertua eskainiko du azaroaren 22an, Sopelako Udaletxe plazan. Iaz, Beldur Barik lehiaketa irabazi zuen “Gaur ez zaitut entzungo” abestiagaz. —Zer dela-eta aukeratu zenituen hip-hop doinuak?

—Bada, iaz Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko hip-hop doinuak dituen abestia sortu nuen. Nire asmoa hip-hopa eta bertsolaritza uztartzea izan zen, eta hortik sortu zen “Gaur ez zaitut entzungo” abestia. Hala ere, beste estilo batzuz ere presente dira nire abestietan; musika baltza, soul edo funkya, berbarako. Estilo horiekaz guztiakaz identifikatzen dut neure burua.

—Zure lanetan genero ikuspegia sarri azaltzen da...

—Egia esan, Beldur Barik lehiaketara aurkeztu nuen kantak espreski generoari buruz hitz egiten zuten. Horrez gain, baina, beste abesti askotan ikuspegi feminis-

ta ere presente da. Agian nahi gabe, baina askotan gai hori agertzen da; bizitzari buruz kantuan ari naiz. Askotan zure bizitzan presente diren gaiak, kontuak azaltzen dira; genero kontuak, besteak beste. —Zelan eragin zuen zure bizitzan Beldur Barik lehiaketa irabazteak?

—Alde batetik, jende asko ezagutu nuen musika munduan, estilo horretan ari diren pertsona asko, hain zuzen ere. Beste alde batetik, nire herriko, Ortuellako Udalak lan bat finantzatu zidan. Gainera,

«Musika baltzarekin, oro har, identifikatzen dut neure burua»

lan hori ekoitzi zuen produktorea ezagutu nuen, sekulako eragina izan duena nigan. Askotan jendeak idazten dit, eta nik pentsatzen dut: “baina nik ez dut ezer egin, bakarrik lehiaketa irabazi”.

—Lan barria sortzen zabilta?

—Orain zuzenean egiten ari naiz; asko ikasten eta gozaten nabil. ○

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!

Bentabx 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urteik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

SEI-HERRI IBILALDI
NEURTUA, ABENDUAK 1

Aurtengoa, XXXI. ibilaldia da, eta urtero legez, aurten ere, egun osoko egitaraua eskainiko dute Berangoko Sei-Herri Kultur Elkartekoek. Hala, abenduaren lehenean, goizean goiz hasita, parte-hartzaileek izena emoteko aukera izango dute Sei-Herri kultur elkartean; helduek 08:15ean eta txikiek 09:30ean. Beti bezala, partaideek bikoteka egin beharko dute ibilbidea. Behin izena emonda, nagusiak 09:00etan dira, eta txikiak 09:30ean. Parte-hartzaile bakoitzak ibilaldia egiten emoten duen denbora neurtzeko, hainbat kontrol-gune izango dira ibilbidean zehar. Horrez gainera, mendizaleek hamaiketako egin (antolakuntzak prestatuko du) eta atsedean hartzeko aukera ere izango dute ibilbidean barrena. Ibilaldia amaitu, eta indarrak berreskuratu eta giro ederragaz gozaten jarraitzeko asmoz herri-bazkaria izango da frontoian 7 euroren truke; umeak, barriz, doan. Arrastian, jai-egunari eusteko 18:30 aldera, frontoian umeentzako jolas-tailerrak antolatuko dituzte, eta triki-poteoa izango da herrian. Aurten Sei-Herri antolatutako ibilaldia "Sei-Herri libre" lelopean ospatuko dute; Euskal Herrian barrena, zenbait epaiketaren aurka zabaldu den mugimenduari erreferentzia eginez. Hala, hortxe aukera parebakoa mendiaz gozatu ez ezik, giro ederraz ere gozatzeko! Horrenbestez, parte hartu gura izanez gero, goizean goiz Berangora hurbildu, eta izen-emoteko aukera izango duzu Sei-herri kultur elkarte parean. Mendiako botak garbitu, eta Berangoko mendietara hurrera zaitetz!

uk zure
publizitatea
hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Azaroak 25; mila aldarri

Aurten ere azaro akabuan, Berango morez jantziko da indarkeriaren aurka



Hitzaldiak, bertso-saioa, antzerkia, txotxongiloak zein kontzentrazioa antolatu dituzte

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira, hainbat ekimen antolatu ditu Berangoko Udalak. Azaroaren 25ean ekitaldiak egin ez ezik, aurreko asteetan ere eskaintza zabala izango da. Hilaren 13an abiatu zuten egitaraua "Emakumea bertsolaritzan" hitzaldiagaz, eta hilaren 16an, barriz, bertso-saioa eskaini zuten Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita eta Oihana Bartra bertsolariak. Horrenbestez, emakumezko bertsolariak izan dira protagonista egitarauaren hasierako ekitaldietan. Aurreantzean, oster, literatura eta antzerkia

izango dira nagusi. Izan ere, hilaren 20an, Josune Muñoz literatura adituak "50 sombras de Grey y otros libros..." berbaldia emongo du 19:00etan Berango eta 23an, 19:00etan *Tipos de Tipas* antzezlan eskainiko du Lalulu antzerki-taldeak Berango Antzokian. Eta haurrek ere hilaren 24an *Garaiz ikasi* emanaldiagaz gozatu ahaliko dute 18:00etan Berango Antzokian. Azkenik, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean, kontzentrazioa izango da 12:00etan metro-geltoki ondoan. ○



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)



INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Raul Garcia > memoria trebatzeko ikastaroko irakasle

"Arlo kognitibo guztiak landuko ditugu, ez bakarrik memoria"



Interesatuak www.aukeraon.net orrialdean alta emon dezaket

Martitzenero, arrastiko 18:00etan eskaintzen du Barrikako Udalak memoria trebatzeko ikastaroa; hala, Raul Garcia psikologo eta ikastaroko irakasleagaz egon gara, ikastaroaren barri izateko.

—Zertan datza ikastaroa?

—Helburua da gaitasun kognitibo guztiak estimulatzea. Batzuetan, entzuten dugunean memoria trebatzeko ikastaroa dela, uste dugu bakarrik memoria lantzeraz mugatuko garela; baina alde kognitiboak lantzeaz hitz egiten dugunean, kasu honetan, hain zuzen, ez dugu soilik memoria landuko. Besteak beste, arreta, espazioan eta denboran orientatzeko gaitasuna, pertzepzioa, arrazoitzeko gaitasuna, lengoia eta kalkulua ere landuko ditugu ikastaroan; beraz, ez dugu bakarrik memoria landuko.

—Eta hori guztia lantzeko zein ariketa erabiliko duzue?

—Arlo horiek guztiak lantzeko, aspektu horiek sustatzeko eta memoria ez galtzeko; azken finean, trebeago izateko, hain-

bat ariketa egingo ditugu; hasteko, taldeka lan egingo dugu eta lan egiteko gure tresna nagusiak arkatza eta papera izango dira. Baina horrez gain, ordenagailuarekin ere lan egiteko asmoa daukagu. Hala, adibide legez, memoria lantzeko,

«55 urtez gorako helduei zuzendu diegu ikastaroa; gehien behar dute-eta»

irudia daukan diapositiba bat jarriko diegu ikasleei, kenduko dugu beste zer edo zer egiteko, eta bi minutu barru ikasleei galdetuko diegu ea gogoratzen duten objektu bakoitza non zegoen, badira mota askotako ariketa asko.

—Norentzat da ikastaroa?

—Ikastaroa 55 urtez gorako pertsonen zuzenduta dago. Gainera, jubilatuta egon daitezkeen pertsonekin pentsatu dugu; arlo kognitibo horiek guztiak lantzen ez dituzten pertsonekin, hain zuzen. Gaur egun, gero eta gutxiago lantzen ditugu hainbat aspektu, horregatik, ondo datorkigu ariketak egitea. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



UKnatura
ZITEK PORTUGALSTE
ESCUOLA SUPERIOR DE NÁUTICA, PORTUGALESTE
MARIA DIAS DE HARO, 68
48960 PORTUGALESTE (BISKAJA)

2013-2014 KURSOA

- *BIODERAKUNTZA TAILERRAK
- *ARTISAU YABOIAK ETA KOSMETIKOAK
- *BIODERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- *ENERGIA BERRITZAGARRIAK
- *HERAZI KAZAK

ETA ASKOZ BEHAGO.

www.uknatura.org 692705471 / 646742241



Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialk garbitzea
- Lan osogarrria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com



Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

URDULIZEN HAINBAT TAILER MARTXAN

Ikasturtea aspalditxo hasi bazen ere, oraindino ere, bada aukera hainbat tailerretan izena emoteko. Hala, eguenetan ekialdeko dantzak egiteko aukera dago; astelehen eta eguen arrastietan, barriz, joskintza ikastaroa dago. Yoga astelehen eta eguaztenetan egiteko aukera dago, eta saltsa ikastaroa, oster, eguen arrastietan. Horrez gainera, nagusientzako pintura-eskolak bariku goizean izango dira, umeei begirakoak astelehen arrastietan dira. Beraz, interesa izanez gero, Urdulizko kultur etxean izena emoteko aukera duzu.

HILAREN 30EAN ANDER DEUNA EGUNA BARRIKAN

Ander Deuna tradizio handiko jai-eguna da Barrikan eta Sopelan. Barrikan egitarauari begiratu, 11:00etan Ander Deuna Baselizan Meza Nagusia izango da; Aita Gotzon abesbatzaren kontzertuaz disfrutatzeko aukera izango dute barrikarrek baselizan bertan. Ostean, Josu Landeta eta Arrate Illaroren bertso-emanaldia eta hamaiketako izango da. Sopedoztarrak 11:00etan urtengo dira kalejiran udaletxetik baselizarantz eta meza 12:00etan dela dio euren egitarauak; arratsaldean pala partidak egongo dira udal pilotalekuan.

GORLIZEN, HILAREN 27AN TOPONIMIA-IKASTAROA

Hil akabuan, Gorlizen bertoko euskara, ahoko ondarea eta toponimia ezagutzeko ikastaroa izango da 18:30etik 20:30era Sertutxenean.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

Mankomunitatea

Uribe Kostan indarkeria matxistaren aurkako oihu ozena



Hamaika jarduera antolatu dituzte indarkeria matxistaren aurka egiteko

Euskal Herri osoko plaza guztietan legez, Uribe Kostan ere, kalera urten, eta emakumeenganako indarkeria matxistaren aurka azalduko dira hainbat eta hainbat herritar. Hala, ondorengo lerrootan, interesatuek Uribe Kostako Mankomunitatean indarkeria matxista salatzeke izango diren jardueren barri izango dute. Barrikan azaroaren 25ean eguerdiko 12:30ean kontzentrazioa egingo dute herriko plazan; arrastiz, barriz, zine-foruma egingo dute Goierriin 17:00etan. Plentzian, oster, azaroaren 22an, "50 sombras de Grey y otros fenómenos extraliterarios" hitzaldia eskainiko du Josune Muñoz literatura adituak; horrez gainera, hilaren 23an "Gazteria eta emakumeenganako indarkeriaren prebentzioa" ikastaroa eskainiko dute Goñi Portalen. Gainera, hilaren 24an Uribe Kostako Mankomunitateko kontzentrazio orokorra eta adierazpenaren irakurketa izango dira eguerdiko

13:00etan Plentziako Astillero plazan. Gorlizen, barriz, azaroaren 28an, Bel-dur Barik lehiaketako Mankomunitateko sari-banaketa izango da, Sertutxenean arrastiko 18:00etan eta azaroaren 25ean kontzentrazioa 18:00etan Udaltxetxe-plazan. Horrez gainera, Urdulizen

«Azaroaren 25ean herriz herri egingo dituzte mobilizazioak; 24an, barriz, Plentziako Astillero plazan»

zine-foruma antolatu dute, 19:00etan *Quereis saber por que las matan? Por nada* filma ikusgai izango da 19:00etan kultur etxean. Eta ordu erdi lehenago, 18:30ean kontzentrazioa udaletxe pareko plazan. Lemoizen, azkenik, azaroaren 25ean eguerdiko 13:00etan kontzentrazioa egingo dute herriko plazan emakumeenganako indarkeria salatzeke helburuagaz. Horrenbestez, hamaika modu izango dira aldarri egiteko. ○

Aza. 19 - Abe. 2

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

MUSIKA

GETXO

► **Hutsa.** Azaroak 21, 19:30ean. Algortako Eztabaida gunean. Doan.
► **Ondarreta abesbatza.** Azaroak 23, 20:00etan. Areetako musika-eskolan.

ERANDIO

► **Mandoilek + 3gabe2.** Azaroak 23, 21:00etan. Gaztetxean.
► **Bat-batean munduko musikekin bertsoan.** Azaroak 29, 20:00etan. Altagako erakusketagelatan.

LEIOA

► **Nancy Vieira.** Azaroak 29, 21:00etan. Kultur Leioan. 18 euro.

SOPELA

► **Korrontzi.** Azaroak 29, 21:00etan. Kurtzio kultur etxean. 3 euro.

ZINEMA

URDULIZ

► **Turbo.** Azaroak 23, 18:00etan. Kultur etxean.
► **Zipi y Zape.** Azaroak 30, 18:00etan. Kultur etxean.

GETXO

► **Monster.** Azaroak 24, 18:00etan. Algortako Abian elkarteetan.
► **Las sesiones.** Azaroak 29, 21:00etan. Areetako musika-eskolan. 2,90 euro.

SOPELA

► **Por nada.** Azaroak 28, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. Doan.

BERANGO

► **Blackie eta Kanuto.** Azaroak 30, 18:00etan. Berango Antzokian. Doan.

► **Antzerkia**
Noviembre Kulturala hasi da Erandion
Desioa desiratzen leloagaz hasi da Noviembre Kulturala Lutxanan. Azaroaren 22an ikusi ahalko dira: *La maquina del dueño* antzezlanak 22:00etan eta DJ goFreak! 23:00etan. Zapatuan, 23an: *Tu mensaje de animo aqui* performancea 19:00etan, *Las indogmables* antzezlanak 20:00etan eta *Niño feriante* musika-emanaldia 22:00etan. Eta domekan, 24an, *Cuando Martina encontro su historia* antzerkia 18:00etan. Bigarren aste akabuari dagokionez, azaroaren 29an film labur emanaldia 19:30ean eta Olaia & Anthony Dexter taldearen kontzertua 22:00etan. Eta hilaren 30ean Irribarreka festa: *Miss Ovarios* 33 antzerkia eta Laikasister DJ, 20:30etik aurrera.

• **Non:** Lutxanako eskola zaharrean • **Noiz:** azaroaren 30era arte

ANTZERKIA

LEIOA

► **Miniatura + Before we fall.** Azaroak 28, 20:00etan. Kultur Leioan. 10 euro.

ERANDIO

► **Puestos en libertad.** Azaroak 30, 20:00etan. Astrabuduko kultur etxean.

BERANGO

► **Txotxongiloak.** Azaroak 30, 18:00etan. Berango Antzokian.

SOPELA

► **Bidaia magikoa.** Azaroak 30, 20:00etan. Kurtzio kultur etxean. 3 euro.
► **Hansel eta gretel.** Abenduak 1, 18:00etan. Kurtzio kultur etxean. 3 euro.

GETXO

► **Pello Añorga ipuin-kontalaria.** Abenduak 1, 12:30ean. Algortako kultur etxean. Doan.
► **Totum.** Abenduak 2, 19:00etan. Areetako musika-eskolan. 3 euro.

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Zetazeoak (Ambar elkarte).** Plentzia Butron Itsas-museoan.

LEIOA

► **Bosteko.** Abenduaren 1era arte. Kultur Leioan.

GETXO

► **Gogoko tokian aldaparik ez! 20 esaera zahar.** Azaroaren 28tik abenduaren 23ra. Abian elkarteetan.

BESTEAK

PLENTZIA

► **Hitzaldia: Emakumeen literatura erotikoa (Josune Muñoz).** Azaroak 22, 19:00etan. Goñi Portalen.

GORLIZ

► **Urezarantza baserriak ezagutzeko txangoa.** Azaroak 23, 11:00etan. Elizako plazatik.
► **Aukera on merkatua.** Azaroak 23, goiz eta arrastiz. Pilotalekuan.

GETXO

► **Hitzaldia egungo polizia ereduari buruz.** Azaroak 28, 19:30ean. Algortako Eztabaida gunean.
► **Berbodromoa.** Abenduak 2, goiz eta arrastiz. Areetako Elkartegian.

LEIOA

► **Hitzaldia abortatzeko eskubideari buruz.** Azaroak 28, 19:30ean. Sakoneta kiroldegian.

BERANGO

► **Ibilaldi neurtua.** Abenduak 1, 08:15ean. Pilotalekutik.

ERANDIO

► **Berbodromoa.** Abenduak 3. Altagako azoka zaharrean.

SATISTEGI
CAFE

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Pottokien moduan

Eguraldi eskasa izan zuten Gorosti Naturzale Elkarteak antolatzen duen Berangoko Perretxiko Egunean, azaroaren 10ean. Halakoetan zaila izaten da jendea kalera animatzea baina, euskaldunak usadioko pertsonak izanik, ezin hutsik egin: pintxoak ateratzean... Doneteen iragarkian legez, jendea agertu zen ez dakigula nondik. Gainontzekoek prestatu otzarak, perretxiko-denboraldia hasi da-eta!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Villa Eloisa

Negurin, XX. mende hasieran

Txalet ikusgarriak daude Negurin, garai oparoenean jauntxoek altxatutako etxe dotoreak. Orain dela ehun urte, ordea, bakan batzuk zeuden, eta ingurunea soloz beteta zegoen. Txalet horietako bat zen Villa Eloisa ederra, sorgindutako etxea emoten zuena eta gaur egun desagertuta dagoena. Miramar kaleko lehenengoan zegoen, Basagoiti etorbidea hasten den lekuan; San Inazio eliza albo batean eta itsasoa bestean. Ziur gaude leihate horietatik enbata ederrak ikus zitezkeela etxearen epel goxoak babestuta. Gaur egun, ostera, etxebizitza-bloke batek ordezkatzen du txalet ikusgarria. Irudi hau XX. mende hasierakoa da, 1910 eta 1915 bitartekoa.

[berbetan]

Herriko Punta Galea Txindulari-Eskolan hasi zuen ibilbidea Jonathan Castroviejok (Getxo, 1987). Abadiñon bizi den txirrindulari getxoztarrak Bizkaiko txirrindulari gazterik onenaren izendapena jaso zuen... Amateurretan (2006) Seguros Bilbao taldeagaz jardun zuen, eta lortutako emaitza onen ondorioz, 20 urtegar fitxatu zuen Euskadi Fundazioak: lehenengo Orbea taldean ibili zen eta 22 urtegar Euskaltel-Euskadi talde nagusira pasa zen; hori utzi, eta iaiztik Movistar taldean dabil. Azken lorpenak, adib.: Espainiako Txapelketako banakako erlojupekoan txapeldunorde (2011; 2012), 2012ko Udako Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen, hainbat Munduko txapelketatan izan da, aurren Espainiako Txapelketako banakako erlojupekoan txapeldun e.a.

Jonathan Castroviejo

Arrapaladan! Eta polito aldapan gora!

Testua: **I. Sagarminaga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zelan gogoratzen dituzu pedalaria eragiten hasi zinen (ez hain aspaldiko) garaiak?

—Egia esan, lagun baten eskutik hasi nintzen. Berak txirrindularitza-eskolan izena emon zuen, eta ni, haren atzetik edo... Orduan, 13-14 urte izango genituen, ez nago oso ziur. Herriko taldean hasi ginen, Punta Galean; hor ibili ginen gazte mailara arte... Entrenatzaileen eta, oro har, danen eta garai haietako oroitzapen benetan onak ditut; familiatxo ginen...

—Zelan eta noiz erabaki zenuen txirrindularitzan modu profesionalen jardun gura zenuela? Zerk bultzatu zintuen erabaki hori hartzera?

—Aukera banuela konturatu... ez dakit noiz izango ete zen. Gazte mailan nenbilela ez dut uste halakoetan pentsatzen nuenik, ezta aukera hori izan nezakeela proposatzen ete nion neure buruari ere. Profesional izateko eta honetatik bizitzeko ahalegindu

baino, ahalik eta ondoen egitea eta jardutea dugu buruan sasoi horretan, nik behintzat; oso gogoko nuelako bizikletan ibiltzea, entrenatzea... Ahalik eta ondoen ibiltzea nuen helburu! Zale mailatik aurrera, lasterketan-eta parte-hartzen hasi nintzenean, batez ere bigarren urtetik aurrera, orduan bai...

“Desakordio edo konpondu ezineko kontu batzuk zirela-eta alde egin nuen; ez nengoen gustura”

Orbeak kontratatu ninduen, gero Euskaltelera pasatzeko aukeragaz... Eta orduan, bai, orduan konturatu-edo egin nintzen txirrindularitzan modu profesionalen jardun nezakeela, horretarako aukera izan banuela... 19 urte inguru izango nituen orduan, esan daiteke garai hartan pentsatu nuela profesional izan nintekeela.

—Gaur-gaurkoz, txirrindulari izanik,

badira eginbeharreko galdera bi: bata, Euskaltelen desagertzeari dagokiona, bestea dopinaren gainekoa. Hasteko, 2011n utzi zenuen Euskaltel-Euskadi taldea, edo telefono-konpainia aldatu zenuen (egun Movistar taldean); zurrumurruren bat edo entzun zenuen ala?

—Ez, ez, ez. Garai hartan ez genekien kontu honetaz ezertxo ere; aurtengora arte ezer ere... Orduan taldeak 3 urteko bidea zuen. Nire kasuan, desakordio edo konpondu ezineko kontu batzuk zirela-eta alde egin nuen. Orduko zuzendari, beno, managerra eta biok ez ginen ados jarri, eta giroz aldatu nahi nuelako eta taldean gustura ez nenguelako erabaki nuen taldez aldatzea; eskain-



tza hobeaz izateaz gainera, horietan izan ziren taldea uzteko arrazoiak. Gerora gertatu dira aurten gertatutakoak. Beno, aurten ez, iaztik dagoeneko taldea fundaziotik banandu zen, Euskaltel zegoen, batetik fundazioa eta bestetik enpresa. Emoten zuena etorkizuna bazuela, baina... azkenean, ez! Egia esan, nik kanpotik edo urrunetik bizi izan dut kontu hau guztia; azken finean, zu lasterketan zabilta eta zure kontuez arduratzen zara... Halere, pena da! Niri jauzia egiteko balio izan zidan taldea izan da, eta erreferentzia-taldea! Beti esan dut Euskaltel, nire iritziz, talde ideala dela: etxeko taldea, eta elitean jarduten zuena, eta gaur egun hori lortzea eta hor jardutea oso zaila da... Agian jendea ez da horretaz konturatzen, edo ez daki, edo ez du onartzen, zein zaila den talde bat maila gorenean izatea eta mantentzea. Agian, orain, dagoeneko maila horretan ibiliko ez den honetan, konturatuko da... Gainera, euskal txirrindulariakaz jardutea, bertoko staff-agaz, taldearen logistika hain gertu izanda eta abar, hori dana luxua zen, itzela! Beharbada ez da beharrezkoa zena bezain ondo eroan dena, eta azkenean ez du aurrera egin. Baina talde eta planteamendu modura, ideala, ametsetako taldea da edonorentzat.

—**Fernando Alonso hasieran, gero Euskadi Fundazioa, azkenean kale... Gaiak edo eztabaidak tropeletik eta txirrindularitza-zaleen artetik harago ere emon duela zeresana.**

—Bai. Egia esan, txirrindularitza asko jaitsi da, eta urtez urte zailagoa da talde bat elite mailan mantentzea. Gaur egun egoera eta beharrianak ez dira orain dela urte batzuk zirenak; duela urte batzuk aurrekontu txikiagoagaz posible zen talde bat maila horretan mantentzea, baina gaur egun hain da konplexua eta garestia! Agian, horregatik Euskaltelek ezin izan du bermatu... edo aurrera jarraitu: beno, horregatik izan dela imajinatzen dut, baina egiazki ez dakit zergatik. Bestalde, Alonsogaz hartu-emonak ez dakit zergatik ez duen aurrera egin, izan liteke Euskaltelek ipintzen zituen baldintzak larregizkoak zirelako, ala beste edozerengatik...

Kontu horietan gauza asko egoten dira bitartean, txirrindularien kontratuak, staff-aren kontratuak e.a. Ez dakit... Kanpoko ikuspegitik, pena handia! Langabezian utzi ditu txirrindulari asko, nire lagun asko... Benetan, txarrena izan da! Gauzak txarto egiteko moduren bat bada, horixe izan da! Maiatzekainetik planteatzen baduzu taldeak ez duela aurrera egingo, tartetxo bat dute txirrin-

“Euskaltel talde ideala zen: etxekoa, eta elitean jarduten zuena; gaur egun hori oso zaila da... luxua zen, itzela!”

dulariek talde barriren bat bilatu ahal izateko... Baina gero esan zuten baietz, eta azken orduan ezetz. Eta horrenbestez, dagoeneko ez dago, edo hobe esan, ez da egon denborarik ezta erreakzionatzeko ere!

—**Krisiaren aitzakiaz gainera, bestelako arrazoirik egon dela uste duzu?**

—Ez dakit; kontu horrek ihes egiten dit...

—**Zorioneko kontuetara begiratzea hobeto. Erlojupekoetan trebezia edo abiadura itzela duzu: batez ere azken urteotako hamaika txapel, garaikur eta domina horren lekuko. Mendiko probetan ere ondo...**

—Egia da, edo historiak hala dio behintzat, zelanbait Euskal Herrian ezohiko espezialitatea dela nirea, gehiago izan ei direlako txirrindulari-eskalaritzaileak edo igotzaileak. Baina, lortutako emaitzen arabera kontua izan da nire kasuan; Orbean nenbilenetik

“Agian ez da behar bezain ondo eroan dena (...); eta egoera eta beharrianak ez dira orain dela urte batzuk zirenak”

erlojupeko itxurosoak egiten nituen, erdibideko baliabideak erabiliz gainera... Eta gero, Euskaltelen nenbilenean konturatu nintzen edo, beno, ez nenbilela batere txarto arlo horretan... Eta hala, apurka-apurka; ondo egiten dugun horretan espezializatu behar dugula uste dut, eta erlojupekoetan espezializatu nintzen. Euskalteleko nire bigarren den-

boraldian Normandiako proba irabaztea lortu nuen, eta horrek aurrera egiteko bultzada eskaini zidan. Halere, esan edo onartu behar dut, azken aldian erlojupekoak irabaztea gero eta zailagoa dela; lauzpabost dabilta hor lehian eta ezinezkoa da, beno, ezinezkoa ez, baina oso-oso zaila eurei gailentzea. Beraz, hobe da txirrindulari osoa izatea, hau da, bai erlojupekoan, bai mendian ondo ibiltzea.

Taldeek ere eskatzen dutena hori da, ez bakarrik honetan espezialista dena, edozein dela alorra aterabide ona eskainiko dion txirrindularia. Birmoldatu eta egokitu beharra dago, eta horretan nabil!

—**Zelan prestatzen duzu zeure burua? Entrenatzeko leku bereziren bat daukazu?**

—Ez, oro har, ez. Txirrindulariok egun asko etxetik kanpora emoten ditugu, lasterketan, altitude-kontzentrazioetan eta abar, oro har, etxean gitxi egoten gara. Baina, berbarako, hitzordu garrantzitsu baterako, Munduko txapelketarako edo, beren-beregi horretarako entrenatzen ahalegintzen gara: erlojupeko bizikleta bereziagaz, abiadura lantzen... Orduan, bai, orduan apur bat desberdin entrenatzen dugu, baina urteko gainontzeko saioetan ez horrenbeste... Hamar egunean behin edo hartzen dut taula, erlojupeko-bi-

zikleta, eta bueltaxkaren bat ematen dut; baina, entrenamendu beren-beregiak Munduko txapelketarako-eta baino ez, proba horiek baino lehenago 20 egun inguru izaten ditugu libre horretarako, eta orduan bai, horretarako bakarrik entrenatzen dugu: nahikoa da erreperidera irten eta ibilbide lautxoren bat aukeratu, zirkulazio gitxi dabilen lekuren

bat... Mungia ingurua gogoko dut horretarako, eta askotan joaten naiz Landa urtegi aldera ere, oso gogoko dut inguru hori. Baina, gainontzean, lasterketa piloa ditugu, Tourra... Eta ez da posible.

—**Txirrindularitza izan daiteke dopin kasuak gehiago ezagutzera emon diren kirola; bestelakoetan ere egongo dira, baina esan daiteke txirrindularitza dela dopin**

“Gustatuko litzaidake jendeak gaurko txirrindularitzari begiratzea; ez 1995 ez 2005ekoari ere; harrituko lirateke!”

kasu gehien publiko egin eta jarri dituen. Zelan bizi duzu?

—Ez dit axola galdera horri erantzuteak. Horretan txirrindularitzan zorte handia izan dugula uste dut; zorionez ala zoritxarrez, txirrindularitza gogor jo duen kontua da, baina ondorioz, txirrindularitzak eskarmentua hartu eta ikasi egin du. Gaur egun, honetan gabiltzanok pribilegiatuak garela uste dut. Egia esan, ni gaztea naiz, eta ez dut bizi izan aurreko garai hori. Baina, kontu honetan, egia da, txarto egin direla gauzak, txarto jokatu da, urte askoan, 2006-7ra arte edo... Ostera, ni gaur egungoagaz lotzen naiz, eta oso pozik nago txirrindulari naizelako, zentzu honetan txirrindularitza dagoen moduan egoteak asko pozten nau. Gustatuko litzaidake jendeak 2014ko gaurko txirrindularitzari begiratzea, eta ez 2006ko hari,

1995ekoari, 1998koari ezta 2005ekoari ere; uste dut harritu egingo zela! Harritu, gaur egun txirrindulariak zelan zaintzen diren ikusita, zein botika gitxi erabiltzen ditugun ikusita...

—**Gero eta proba gogorragoak, zailtasun eta erronka handiagoak etapa bakoitzeko...**

—Ez da hainbesterako ere... Egun gizakiok maila hori eta gehiago emoteko prestatuta

gaude; hori bai, erronka zentzuzko mugen artean dagoen heinean. Batez ere kilometropontzentajeari dagokionez, esaterako, etapa-ko 200 km-koa eta desnibel-metatuagaz...

Horrek ez dauka zentzurik; baina gorputzak asko jasan dezake. Eta esaten den legez, ibilbidea ez da hiltzen duena, abiadura baino. Horrenbestez, arazoa ez da ibilbideen eta horien gogortasuna; gaur egun Tourrak egiten jarraitzen dugu, astiroago agian! (kar, kar) Baina bidea egin egiten dugu! Eta gorputzak jasaten ditu. Are gehiago, askotan harritzen gara zenbaterainoko eutsi dezake gure gorputzak ezelako kanpo-laguntza barik. Horren albotik, prestakuntza aldetik asko aurreratu da, elikatze-moduetan ere bai; dana dago bata besteari lotuta.

—**Hurrengo urterako erronkak? Eta etorkizuneko ametsak?**

—Erronka: hobetzen jarraitzea! Hobetzen jarraitu eta aurrerantz saltotxo bat emon ahal badut... Euskalteleko azken urtean erlojupeko bi irabazi nituen baina, beno, besterik ez; mendian ez nenbilen gura beste eta... Gaur egun txirrindulari osoagoa naizela uste dut, mendi-proba gogorragoei hobeto erantzuten diet, 20-25 onenen artean egon... Eta bilakaera horri eutsi! Datorren urtean ea etapako itzuliren batean parte hartzen duan, esaterako, Tirrenokoan; aurten eta ia ia-ia, baina... ea aurten lortzen dudan! Hobetzen jarraitzea, ez dut bestelako helburu argirik, errendimendu ona izatea, horregaz gainontzeko guztia bide honetik joan daiteke... Eta ametsak? Batez ere Munduko txapelketa irabazi gura nuke.

—**Eta harrobia zelan ikusten duzu? Zer gomendio duzu eurei emoteko?**

—Badakit gaur egun ez dela batere erraza, are zailagoa Euskadi mailan; gainera, esan legez, Euskaltelen desagertzeagaz... Apur bat zailagoa da, baina ez ezinezkoa! Neuk ere lortu nuenean ez zen urterik onena izan, urte zaila eta konplexua izan zen... Baina, konstante izanez, norberaren irmotasunagaz eta ilusioa zein ametsak ez galduz, nik uste lor litekeela. Azken finean, esaten den legez, darraionarentzat da ehiza! Ez dezatela ilusiorik gal! Eta zaletuko direnei zer esan? Kirol benetan ederra dela! Badakit zorionekoa naizela eta onartzen dut; gaur egun nagoen moduan egotea, txirrindularitzako elitean, ez nuke ezerean truke aldatuko! ○

aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....

Kalea/zenb..... Herria.....

e-mail.....

Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro

beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa. 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37






Wudang-en ikasitakoak

Hodei Torres (San Inazio, Bilbo, 1985) argazkilaria martxo-apirilean Wudang-en (Txina hegoaldea) izan zen, David eta Asier Fernandez anaiakaz. Fenandeztarrak kung fu-an entrenatzera joan ziren, ikastera, eta horretan oinarrituta Hodei Torresek dokumentala osatzeko eginbeharra zuen. Lehenengoek, arte martzialen ugaritasuna bizi eta bakoitzetik onena hartzea hobe dela ikusi, ikasi zuten; bigarrenak, dokumental bat egitea ere (abendurako edo) bidaia itzela dela... Izan ere, itzuli ostean ere, bidaitzen jarraitzen dugu, bidaiatik ikasten darraigu... Bidaia dakizkigunak zein barriak (ber)ikastea ez bada, ez dalako...

Argazkiak: **Hodei Torres**








Emakumeek sortutako literatura erotikoa > “50 itzal” baino gehiago

“Emakumeok sexua nahi dugu, gozatzeko dugu, preziatzen dugu, dastatzeko dugu”

Zurrumbilo itzela eragin zuen *Greyren 50 itzalak* bildumak, askoren begietara, emoten du gaur arte emakumeek ez dutela sortu literatura erotikorik. Inondik ere ez: emakumeen erotismoaren aberastasuna erakutsi zuen Josune Muñoz literatur kritikariak Argotan, azaro hasieran.

“*Amoniako-zaporea* dastatu nahi ez eta, ahoa erretinatzen dut zure sabelpeko itsasgoratik. Eldarnioaren zurrumbiloan uzten zaitut, nire gorputzaren obol blaituei lotuta. Laster, olatu bi hasiko dira nahas-mahasean korrika: batak zure izena dakar apar gainean; besteak neurea, apar azpian”; horrela dio Miren Agur Meabek, emakumeek ere, desiratzen dutelako.

“*Eta desiratzen dute zentzumen danakaz*”, hori argi dauka Josune Muñozek




Muñozen hitzaldia iragartzen zuen kartela

eta, hortaz, emakumeen erotismoa *Greyren 50 itzalak* trilogian aurkeztutakoa baino askoz zabalagoa dela. Muñozen iritziz, trilogiak ez dio ekarri ezer barririk genero-

ari: “*Kamasutran bezala, trilogian ere emakumea pasiboa da, harreman sexualak gizonak gidatzen ditu bere neurria. Erotismoaren egungo bilgarriak nahas gaitzake: liburuotan emakumea benetan libre da desiratzeke?*”.

Horregatik, lau gako emon zuen emakumeen literatura erotikoa era kritikoan irakurtzeko. Lehen, genero honetan oso ondo ikusten dela emakumeek beste harreman mota bat izan dezaketela sexualitate, erotismo eta gorputzagaz. Bigarrena, berak topatutako literaturan, areago poesia, zentzumenak agertzeko ohitura handia daukala emakumeak: desira sentitzen duela begiz, eskuz, ahoz... Eta gustuko duela gorputza dastatzea, xurgatzea, ukitzea eta usaintzea, gauza desberdinak desiratzen dituela, eduki gehiagaz: “*Argi du zer nahi duen, eta eskatzen du ezkongabea,*



Euskarazko hainbat argitalpen erotiko

ezkongabea, hemen, kanpoan...”.

Euskal Herrian oso berandu

Hirugarren gakoa, emakumeek betidanik sortu dutela literatura erotikoa, eta beti ez dela izan idatzia, batzuetan ahozkoa izan dela: horren baitan kokatzen dira, adibidez, Afganistango *Landais* kantuak: Pas-

tun etniako emakumeen kantu laburrak dira, desira agertzeko kantuak. *Malmaridadas* izendatutako emakumeen adibide harrigarria ei dira.

Azkenik, Muñozek dio genero honen barruan badagoela azpi-genero autobiografiko bat eta, erotismoaz gainera, beste-lako informazio interesgarri asko dakarre-

ZENBAIT IRADOKIZUN:

- *Desira plazer* (Euskal literatura erotikoren antologia, Txalaparta, 2009)
- *Orgasmus* (zenbait egile, Txalaparta, 2010)
- *Ohama* komikia (Waller & Kate Worley, Astiberri, 2008)
- *Las mil y una noches* komikia (Laura argitaletxea, 2007)
- *La trampa de la yegua* (Kamasutra. Doninger, Anagrama, 2004)
- *Cuentos eróticos y mágicos de mujeres nomadas tibetanas* (M. Causeman, Paidós)
- *El sabor de la miel* (Salwa Al Neimi, Emece, 2009)
- *Cereza roja sobre lasos blancas* (Maram Al-Masri, Lancelot, 2003)
- *Las edades de Lulu* (Almudena Grandes)

la: asko salaketarako lanak dira.

Gurera etorrita, esatea Euskal Herrian oso berandu hasi dela erotismoaz idazten: “*euskal literaturan nabarmena da euskaraz idatzi dutenak apaizak izan direla mendetan*”. Pentsa, euskaraz idatzitako lehen material erotikoa XX. mende amaiera-koak dira eta *klitori* hitza 2000.ean agertu zen lehenengoz euskal literaturan. Baina berandu hasiagatik grinarik ez da falta: Karnele Igartuaren poemak dioten legez, “*Olatutzar batek eraman nahi. Higana. Busti-busti. Kanpotik itsasoz. Barrutik gure urez. Eta bizirik, ene! Bizirik!*”.

Josune Muñoz > literatur kritikaria eta Skolastikako zuzendaria

“Kontuz ibili behar da saltzen diguten erotismo modernoarekin”

—Emakumeen erotismoaren merkantilizazioaren baitan kokatu duzu *Greyren 50 itzalak* trilogia ospetsua, zergatik? Zer esan gura duzu?

—Kontuz ibili behar dela saltzen diguten erotismo modernoarekin. Mendetako borroka izan da gure gorputza gureganatzea eta gure desiraren subjektu izatea, orain hain erraz galtzeko. Hitzaldian gako batzuk eman nahi nituen jendeak era kritikoan irakurri ahal dezan: harre-

man sexualak gizonak bideratzen baditu, gizonak zuzentzen baditu, agintzen baditu eta erabakitzen baditu, neska nahiz eta oso pozik egon, azkenean hor ez dago parekidetasunik.

—Emakumeen liburu batzuk anonimoak dira.

—Generoa debekatuta zegoen. Bestelako generoak argitaratzeko ere zailtasunak izan ditugu, baina hori debekatuta zegoen. Emakumeok publikatzeko erraz

izan dugu eleberririk sentimentala eta poesia; beste genero guztietan beti izan da zailago gu heltzea, eta hau bereziki zaila, eta batez ere XIX. mendean.

—Hitz egin duzu Komikiaren pornografizazioaz 80-90eko urteetan mendebaldean, baina batez ere Espainian.

—Underground-a sortu zenetik, mendebalde osoan, baina bereziki areagotu zen Espainian, gizonazko batek botere itzela zeukalako, erabakitzeke botere eta ahal-

mena, eta orduan bere gustuen arabera gidatu zuen komikigintza. Gustu oso pornografikoak zeuzkan eta pornografiatu zen komikia. Erabaki merkantilista bat ere izan zen, komikiaren krisiaren aurrean, baina areagotu zen gizon honen gustua zela-eta. Esatea, testuinguru horri aurre eginez, garai hartan emakume batzuek bestelako komiki erotikoa egin zituztela.

—Euskaraz oso berandu hasi da genero hau lantzen, zer dela-eta?

—Gizarte oso erlijiosoa izan dugu azken mendeetan. Eta Euskal Herrian gureganatu dugun emakumeen irudia, nahiz eta emakume sendoa eta erabaki handikoa izan, sexuan ez da hori gertatu: etxeko erreginak edo aingeruak gara nolabait,

beraz egon da sexualizazio gitxi emakumearen inguruan. Alde batetik, egia da igual ez dugula jaso trataera pornografiko hori, hain tristea dana, baina beste alde batetik, gure sexualitatea ez da agerian egon. Ganorazko lehenengo euskarazko antologia 2008koa, eta nik neuk parte hartu nuelako: zorionez, nire irizpidearekin fidatu ziren eta antologia ona egin genuen. Beraz, inork ezagutu nahi badu euskal emakumeen arlo erotikoa, poesia erotikoa edo sentsibilitateak, *Desira plazer* liburuan agertzen dira.

—Zer utzi gura duzu argi?

—Emakumeok sexua nahi dugula, gustatzen zaigula, gozatzeko dugu, preziatzen dugula, dastatzeko dugu. ○





BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Zine Bileraren 36.a

Euskal zinemaren lurrin-lurrina;
Lekutzea: **Lekeitio** Iraupena: **hilak 24-30**



Info+: www.zinebilera.com

Euskal Zine Bilerak (EZB) 36. ekitaldia betetzen du aurten, nobedadez eta zaharbarritutako talde-antolatzailearen ilusioz. Hasiera-ekitaldia azaroaren 24an izango bada ere, lehiaketara aurkeztutako lan hautatuen erakustaldia hilaren 26an hasi eta 30era bitartean izango da Lekeitioko Ikusgarri zinema-aretoan; astegunetan arrastiko 19:30ean da hitzordua, eta zapatuan goizez ere bai.

Hasiera-ekitaldian *Amaren eskuak* filma, Donostiako Zinemaldian estreinatu zen euskarazko fikzio-lan luze bakarria, eskainiko dute, eta bertan izango dira Mireia Gabilondo zuzendaria eta Karnele Jaio, filmak oinarrian duen

nobelaren idazlea. Hurrengo egunetan euskara hutsezko (entzuteko moduan, zein irakurtzeko azpigituluakaz) zinemaldiko lehiaketara aurkeztu diren 54 lan ikusteko aukera izango da; jasotako kopuruagaz pozik agertu dira antolatzaileak. 30 minututik beherako iraupena duten zinema-ekoizpen horietatik 19 zinegile profesionalak egindakoak dira

«Antzarengatik lehiatuko diren lanak azaroaren 26tik 30era ikusgai»

eta 24 amateurrek. Lehiaketako kategoria bi horiez gainera, aurten Gazte 22 (1991 ostean jaiotakoentzat) kategoria ere estreinatu dute; eta horretan 9 lanek parte hartuko dute. Ostera, aurreko urteetan ez bezala, aurten sariketa hainbat ataletan banatuko dute: zuzendaritza, ekoizpena, gidioa, argazkia eta filmarik onena. Eta sariak ere potolotu egin dira aurtengo; hala, atal horietako bakoitzeko lan profesional onenak antzara eta 1.620 euroko saria jasoko du, eta atal bakoitzeko lan amateur onenak antzara eta 1.100 euro; bestetik, Gazte 22ko lan onenak 600 euro eta antzara.

Filmen eta egileen zerrendarik momentuz ez dute ezagutzera emon... Baina euskal zinemaren topalekuak badu zer eskaini, adi beraz... ○

Nazioarteko trikitilariak

Hilaren 30ean izango da Trikitixa-jaialdia **Areetan**, eta ostean **erromeria** Algortan



Info+: www.bizkaikotrikitixaelkartea.com

Hilaren azken egunean, Andres Isasi musika-eskolan, 19:00etan hasiko da Bizkaiko Trikitixa Elkarteak antolatzen duen Nazioarteko Trikitixa Jaialdia (sarrera: 8 euro). Aurten Irlanda, Portugal eta Euskal Herriko trikitilariak izango dira protagonista, hurrenez hurren: David Munnely, Artur Fernandes, Maixa Lizarribar eta Alaitz Telletxea, Alboka Tropik eta Gari eta Iñaki.

Antolatzaileek azaldu dutenez, *“trikitixa jotzeko modu eta estiloak erakutsi gura dira, eta trikitixa munduan zehar beste musika tresna batzuek zelan buztartzen*

den ere bai. (...) Batetik, irakaskuntza lantzen da; aipatutako musika-tresna, estilo eta jaialdian joko duten trikitilariak ezagutzera emonez. Bestetik, trikitixa bera sustatzen da; izan ere, jaialdia edozein publikori zuzentzen zaio (trikitixa ikasle, irakasle, trikitixa eta orokorrean musika-zale, folklo-re-zale, ume, heldu eta abarri)”.

Horiek helburu, jaialdiaren bueltan, ikastaroak eta erromeria prestatu dituzte; azken hori, Aldats-taldea gidari, Algortako Piper's Irish Puben izango da jaialdia amaitu ostean (Areetatik Algortarainoko doako autobusa egongo da). ○

aldarria > Eten ekimena

On taldeko abeslari eta gitarra-jotzaile beizamar Itsaso Gutierrezek bultzatu du Eten egitasmoa: emakumeenganako indarkeriaren aurka borrokatzeko. Musikatik egin gura izan du ekarpena eta, besteak beste, kantu bilduma eta kontzertua prest ditu. Batetik, tratu txarren gaineko euskarazko abestiak osatu duten bilduman (6 euro) ondorengoek parte hartu dute: Itxaro Borda eta Ekhi Vegas, Iheskide, Humus, Izate, Herri Oihua, Zzio, Sohano, Lukas Prest, Nx, Ero, Niketz, Napoka Iria, Skakeitan, Bostenbor, On, Hil aiari, Guar Ez, Sexplotion, Metralleta, Ko-kein, Nekez eta Humilitate taldeek. Bestetik, hilaren 30ean Durangoko Plateruena kafe antzokian egingo den aldarri-kontzertua antolatu dute (sarrera: 10 euro / sarrera+CDa 13 euro). Horietako hainbat talderen zuzenekoek gainera, ekimenaren alde agertu diren beste musikari batzuek ere parte hartuko dute, berbarako: Amaia Zubiria, Anje Duhalde, Xabi Solano, Rafa Rueda, Soka!, Petti, Mursego, Ain1 e.a.

bueltan > SixtySexers

Talde nafarra kantu barriak sortzen dabil, *“gure betiko Aduanako lokalean”*, diskoa prestatzen. Bitartean, aspaldi ase bako zuzenean jardutearen harra elikatzeko beharra izan dute, eta sortzeko-partaide Inaxio Agara batera jotzailearen itzuleragaz Mikel Larratxe, Julen Irazoki, Joseba Baleztena eta Xiker Salaberria oholtzaratu dira, Lorerik ez urkamendian bira laburragaz; horretako azken kontzertu bigaz gozatzeko aukera duzu Ondarroan (hilak 23) eta Hondarribian (hilak 30).

Info+: www.sixtysixers.com

diskoak

Morphinapolis
Governors
Baga Biga



“Morfinaren giza eraginkortasuna metafora bezala hartuz, gizartearen anomia eta gizabanakoa lotan mantendu nahi duen politika menderatzaileari aurre egiteko garrasi iraukor eta sakona da” Governors taldearen laugarren lana. Metalera hurbiltzen diren rock doinu gogorrekaz lozorotik esnarazteko zartakoa ematen duten letrakaz josita.

Vol.2
Glaukoma
Bonberenea Ekintzak



Bigarren lana aurkeztu barri du talde gipuzkoarrak, estreinako lana argitaratu eta urte eta erdi eskas pasa deanean. 7 kantuk osatzen dute diskoa, eta drum&bass, rap zein reggae arloko dancehall edo raggamuffin doinurik ez ditu falta. Karlos Osinagaren gidaritzapean grabatu zuten lana, iragan abuztu-irail bitartean, Tolosako Bonberenea gaztetxean.

Tradition 2.1
Korrontzi
Baga Biga



Mungia folk-taldeak laugarren lana kaleratu barri du. *“Tradizioa eta folklorea gaurkotatzen laguntza”* da taldeak egin duen eskaintza eta orangoan hainbat leku eta kultura anitzetako musikari mordoak izan dituzte laguntzaile, euren soinuk ere diskoan txertatuz. Aurkezpen-birako kontzertu bat Sopelan, Kurzio emango dute azaroaren 29an (21:00; 3 euro).

uk

zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- lokalak eta etxebizitzak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 -6 • regaraizar@euskalnet.net
www.garaizar.biz
Illota kalea 1 • ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean

Tf. 94 430 15 00

(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

Aresti oinarri

Bizi balitz poeta bilbotarrak **80 urte** zituzkeen honetan, **Gabrielen lekua** oholtzaratu dute

“**Sentikaria**”, ikuskaria, ikuskizuna, antzerkia, ikus-entzunezkoa, bertsolaritza, musika... hainbat kultura adierazpide elkartzen dituen *Gabrielen lekua* oholtzaratu dute Gabriel Aresti elkarte sortu barriak eta Zenbat Gara elkarteak.

Gabriel Aresti Segurola (Bilbo, 1933-1975) idazle eta poeta 41 urte besterik ez zituela zendu zen, bizi balitz, iragan urriaren 14an 80 urte beteko zituzkeen. Urteuren biribil horren harira eta hainbat helburu gauzatzeko asmoz sortu dute idazlearen ondorengoek (Meli Estebanek, Gabrielen alargunak, eta hiru alabek) eta Zenbat Gara elkarteak Gabriel Aresti kultura-elkartea: “*idazlearen ekarpen guztiak bildu, egituratu eta eguneratuko dituen elkarte baten hutsunea estali guran, eta be-*

«Abenduaren 3an Sopelan; datorren urtean Leioan eta Getxon ere bai»

randu bada ere, gaurgero Gabrielelek badu bere izena daraman eta bere izana leku guztiatarazabalduko duen elkarteak”. Poeta bilbotarraren “*ondare literarioa eta gizabaliok zentzu zabalean*” ezagutaraztea du elkarteak egitekotzat, horretarako, hiru oinarri ezarri ditu: “*haren euskalduntasuna, haren unibertsaltasuna eta haren just-*



Info-: www.gabrielaresti.eu

zia-grina; bere idazlan guztietan ageri-agerikoak”. Helburuok euskarri hartuta berbaldiak, literatura-ibilaldiak, *Diot Gabriel Aresti* dokumentala, errezitaldiak eta *Gabrielen Lekua* ikuskaria antolatu dituzte. Besteak beste, Oier Guillan, Andoni Egaña, Rafa Rueda, Alain Urrutia eta Ainhoa Alberdi dira Arestiren unibertsoari keinu egiten dioten ikuskariko sortzaile-protagonistak... Hori ezagutzeko grina baduzu Sopelako Kurtzio kultur etxean duzute aukera, abenduaren 3an (Euskararen Aspiren barruan; 19:00etan, doako sarrerak azaroaren 25etik jaso daitezke); edo datorren urtean Leioan eta Getxon ere bai. ○

liburuak



Parisen bizi naiz

Koldo Izagirre
Susana

“*Hiria, aldrietako batek begiratua eta epaitua; maila urbanoa eta sinbolikoan, pertsonalean eta kolektiboan, historikoan eta literarioan eta linguistikoan...*” du ardatz Altzan jaiotako idazlearen zortzigarren poema liburuak; Donostiari eta, oro har, hiriei kritika zorrotza eta...



Sirena-hotsak


Xabier Etxaniz Rojo
Erein

Trintxerpekoak “*iragana eta oraina biltzen diren leku ilun ezkutaren inguruko lau kontakizun, lau bidaia*” batu ditu bosgarren ipuin-liburuan. Narrazio luzeak oraingoan: “*Matxupitxu*”, “*Akelarreak*”, “*American way of life*” eta “*Sirena-hotsak*”; nagusien bizitzaz, maitasunaz, euskal gatazkaz...

[kirola]

Arrautzaldeon, 20 urte

Futbol taldeko jokalaria eta **kide** guztiak batu gura dituzte **urteurrena** ospatzeko



Erregionaleko lehenengo mailan joko askoz hobea nabaritzen dutela aitortu du Santiagok

Futbola gustuko zuen lagunarteak Arrautzaldeon taldea sortu zuen, eta futbol hamaikan jokatzeko kluba federatu zuten, aurrerantzean ekarriko zuena jakin barik. Futbol taldeko presidente Andoni Santiagok azaldu duenez, “*taldea izateko asmorik gabe sortu genuen, baina gero Algortako jendea gehiago animatu zen, eta horrela kluba sortu genuen, bigarren erregionalean jokatzeko*”. Aurten hogeitau urte beteko ditu Algortako Arrautzaldeon taldeak eta, ospatzeko asmoz, denboraldi amaieran urte hauetan guztietan taldetik pasatu diren pertsona danak harremanetan ipiniko dira txapelketa berezi bat antolatzeko helburuagaz: “*Iaz, denboraldi amaieran, futbol zaspiko txapelketa jokatu genuen taldeko hainbat jokalarigaz. Aurten, denboraldia bukatzean 20. urteurrena beteko dugunez, taldetik pasatu diren ahalik eta pertsona gehien batzen ahalegindu eta txapelketa antolatzeko asmoa dugu*”.

Iaz, hainbat auzi eta liskar bizi izan zituzten, mailaz igotzeko aukera zutela eta.

Ia-ia ez zuten lortu, baina azkenean, erregionaleko lehenengo mailan jokatzera heldu dira. Denboraldia amaitu zenean, laugarren postuan zegoen Arrautzaldeon, baina hirugarren postuan zegoen Gatika B taldea desagertzean, horrek utzitako hutsunea bete zuen Algortako taldeak. Azken

«Taldetik pasatu diren ahalik eta pertsona gehien batu gura ditugu»

momentuan, Audio taldea 3. mailara igo zenez, beste batek bete behar zuen utzitako lekua eta Santiagoren esanetan: “*Galea B baino puntu gehiago genituen, gu igotzea eskatu genuen; baina hori erabakitzeke partida jokatu behar genuela esan ziguten. Iraileko lehen astean jokatu genituen partida biak, lehenengoan berdindu eta bigarrena irabazi; beraz, gu igo gara azkenean*”. Aurtengo denboraldia zail ikusten badute ere, argi dute: “*Maila honetan mantentzea da gure helburu nagusia; hurrengoan beste gauza bat planteatu genezake*”. ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIROL
MODA



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

Aritza Zabala Gomez > Santiago (Txile)

“Elizak gaztez betetzen dira: oso fededunak dira”

Ikasketak Txilen amaitzea erabaki zuen Aritza Zabala Gomez leioztarrak: bertako kultura eta jendea ezagutzeko, paisaiari dagokionez dibertsitate handia daukalako (hegoaldean Patagonia eta iparraldean munduko basamorturik lehorrena: Atacama), eta euskaldun asko dagoelako (txiletarren %27 euskal jatorrikoa da). Bestalde, unibertsitatean jendeagaz harremanak izateak lagundu ei dio bere burua zabaltzen eta hango bizimodua gehiago ezagutzen. Gainera, Txile aukeratu zuen *“oreka ekonomiko handia duelako eta lan-eskaintza ugari daudelako”*.



Ikasketak amaitzeko Txile aukeratu zuen leiozta gazte honek. Duela lau hilabete joan zen Santiago hiriburura, bertan urtebete lotzeko asmoz. Ondokoa kontatu digu lurraldeari buruz.

Zer bisitatu eta zer ez gald

Santiago oso handia da, kulturalki oso aberatsa, eta egunero daude kultur ekimenak edonon. Hiria mendikatez inguratuta dago eta ikustekoak dira erdigunean dagoen Santa Lucia menditxoa, baita San Cristobal mendia ere, bere ama-birjinagaz batera: azken horretan badago euskal plaza bat ikurriñakaz, “Euzkadiko” armariagaz eta haritz batez, Gernikako arbolaren oroitzapen gisa.


Harritzeko modukoa

Txakurrak kaleko edozein tokitan daudela etzanda: txakur alperrak dira eta kalean bizi dira, Santiagon hainbat daude.

Prezioei dagokionez, harritzekoa da janiariaren prezioa: prezioak merkeagoak izango zirelakoan zegoen leiozta, baina Bilbon baino garestiago ei dira. Aipatzea jendearen arteko diferentzia sozio-ekonomikoa asko igartzen dela edonon eta, azkenik, oso fededunak direla: mezatarra jende gazte asko joaten da.

Zer jan... eta edan

Txileko gastronomiak herrialde askotako eragina dauka, baina ospetsuenetari-koak dira bertako enpanadillak eta “so-paipilla” delakoak, eta kalean edonon eros daitezke. Edariari dagokionez, oso ezaguna da “piscoa”: txiletar gazteek gehien edaten duten edaria. Horretaz gainera, “terremoto” koktelak ere nahiko ospetsuak dira; ardo zuriz, piña-izozkiz eta granadinaz osatuta daude: kontuz ibili beharra dago horiekaz, pare bat edanez gero berehala mozkortzen zara-eta. ○



Nor da

Nongoa
Leioa

Adina
25

Zertan dabil
Antolakuntza ingeniariatzako azken urtea amaitzen dabil.

Ikasketak
Meatze ingeniari teknikoa energia eta erregaletan

Noiz arte
Urtebeterako joan zen Santiagora eta daborduko lau hilabete daroa han

Non dago

Lurraldea
Txileko Errepublika (756.950 kilometro koadro)

Hiria
Santiago (Txileko hiriburua)

Azalera
641,4 kilometro koadro

Kokapena
Txile erdialdean

Biztanleria
5,5 milioi inguru (8.464 biztanle kilometro koadroko)

Hizkuntza
Gaztelania da ofiziala, baina beste hainbat daude: maputxe, aimara edota kitxua; eta Pazko uhartean rapa nui hizkuntza.

Dirua
Peso txiletarra

Aritza Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherrikomitologia.com webgunera jo.



Aideko. Ilustrazioa: Daniel Castello

Aideko

Gure arbasoen sinesmenak ezagutu ditugu apurka-apurka. Mari, euskaldunentzako Jainkosa nagusia, bere senideak, erraldoiak diren izakiak...

Horiekin guztiakin munduaren interpretazio berezia transmititzen dute. Baina batzuetan, horiekin batera, bestelako mitoa topatzen ditugu, azalpen bako gertaerei erantzuna emon asmoz... Hori baino ez da Aideko, gaixotasunen gaineko mitoa.

Inork ez du inoiz ikusi, inork ez du haren forma ezagutzen, baina, antza denez, Lañaidegaz ahaidetasunen bat duen jainua da. Gizakiaren begientzako ikusezina izaki, hegan joaten zen toki batetik bestera haizea bezala, haize bolada legez, berarekin eramanez, zenbaitetan, babesa eta, berak hala erabakiz gero, gaixotasunik hilkorrenak. Eta neure buruari galdetzen diot: zelan babes daiteke norbait haizearengandik, zirrikitu txikienetik ere sartzeko gai bada?

Kondaira

Bittor Uriarte egunsentiarekin batera jaiki zen, egunero egin ohi zuen moduan. Eguzkia Zierbenako horizontean sumatzen zen jadanik, argia emanez. Ukuilurantz abiatu zen, behiak jezteko asmoz.

«Eta zelan babes daiteke norbait haizearengandik?»

Aitzitik, aire zabalera irten zenean, haizete sendo batek zaildu egin zion ibiltzea. Ahal izan zuen moduan ukuiluraino joan zen, eta hara iristean, atea irekitzen ahalegindu, baina haize bolada bortitz batek galarazo egin zion. Arnasestuka aldaba askatu zuen.

Istant batzuk igarota haizea gelditu zela igarri zuenean, besoa luzatu zuen berriro

ere eta eskutokia biratu zuen. Aitzitik, hori egitera zihoan unean bertan, haize bolada bat sortu zen berriro ere, bigarren aldiz atea irekitzea zailduz. Bittor alde batera baztertu zen, harriturik. Bazirudien haizea bere aurrerapausoak zailtzen zebilela, ukuiluan sartzea nahiko ez balu bezala.

Ahapeka madarikazioak botaz, buelta erdia eman eta baserrira itzuli zen, eta han sartzen ari zen unean bertan tximista bat erori zen estalpean, nondik zetorren oso ondo jakin barik, izan ere, zerua erabat garbi zegoen.

Animalietatik bakar bat ere ez zen salbatu baina, hala eta guztiz ere, Bittorrekin eskerrak ematen zizkion Aidekori, haizearen bitartez ukuiluan sartzea galarazo zion-eta; horrenbestez, bizirik mantentzea ahalbidetu zion izaki bitxiak... ○

[badaukazu non aukeratu]

[pintxotan]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



portu zaharra bar
 Portu Zaharra kalea 35
 48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
 Tf. 94 460 20 33
 portuzaharra@portuzaharra.com
 www.portuzaharra.com



SOLAETXE
 Eguneko menua **Jatetxea** Karta
 Asteburuko menua Oilasko erretegia
 Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
 RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK ENKARGUZ
HERRIKO TABERNA
 Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



berezi
 Hanburgesak Ogitartekoak
 Sanwichak Plater konbinatuak
 SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
 ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



BODEGUILLA BUTRON
 Bidobitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
 94 430 01 74
 www.bodeguillabutron.com



txakoli mota gane Tx. txakolina
 Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
 Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA JATETXEA
 C/ Alangobarri n°3, C.P. 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
 Eguneko menua
 Menu bereziak
 Karta
 Erreserbak:
 94 476 2389
 607 21 89 61
 LUTXANA-ERANDIO



LURREN
 GOSARIAK
 PINTXOAK
 KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
 SOPELA
 Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



GURE ETXEA taberna
 HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
 Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

Piperren gozotasuna

betiko jakien aho-goza



Oso erraz egitekoa da honako pintxoak

Oraingoan ere Sopelako Lurren tabernara hurbildu gara, bertako pintxoaren aho-goza ondo pasatzeko. Hala, ale honetan dakarkizugun pintxo sinplea izateaz gain, gozo-goza ere bada. Pintxo honen jaki izarra piperrak dira; beraz, piperzale izanez gero, adi hurrengo erretzari... Pintxoagaz hasteko ozpin-olio bat egiten hasi behar dugu, hori egiteko piper berdea, 2 pikillo piper eta tipulina bat beharko dugu, baita olio eta ozpina ere, noski. Horrela, katilu batean olio botako dugu, ondoren ozpina; behin, bietatik kantitate bera bota dugula, bakoitzetik koilarakada handi bi, piper gorria, berdea eta tipulina txiki-txiki ebakiko ditugu. Dena txiki-txiki egin ostean, olio eta ozpin nahasketara botako ditugu,

horrela, dena ondo nahastu, eta azkenik, prest izango dugu gure ozpin-olio nahasketara. Pintxoagaz jarraitzeko, txapata ogi-xerra bat moztuko dugu, eta horren gainean, hain zuzen, egindako nahasketa jarriko dugu. Txapata izan behar du, mota horrek ondoen eutsiko baitie pintxo gainean jarriko ditugun jakiei. Olio-ozpina ogi gainean jarri ostean, atuna zatitu eta gainean jarriko dugu. Amaitzeko, pintxo apaintzeko perrexila txikitu, eta pintxo gainean eta inguruan zabalduko dugu. Beraz, ikus dezakezun bezala, erraz egin ahalko duzu honako pintxoak; betiko jakiak gozo-goza. Prest zaude sukaldeari eta irudimenari eragiteko? o

Osagaiak: olio, ozpina, pikillo piper 2, piper berdea, tipulina, atuna, perrexila

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Croissanterie Briocherie
 MONIF IATA 1
 48992 Getxo (BIZKAIA)
 CROISSANTERIE-GETXO.BLOGSPOT.COM
 91 460 86 48



BASARTENA
URDULIZ
 Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri
 Sarrikobaso 4 -ALGORTA
 Tf. 94 430 64 93

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
irati
OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Frutu lehorak - Aldizkariak - Lixareriak
Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Laster dator zure urtebetetzea eta urduritzen hasi zara: ingurukoak zorrotza daukazu, astuntxo ipintzen ari zara, gero! Lasai zaitze, bestela zorianik ez duzu jasoko.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ederto pasa zenuen Zamudioko jaietan, ezta? Urteko azkenak eta ezin hutsik egin, parrandazale hori! Orain deskantsua datorren urtera arte. Jai-abstinentziari aurre egin ahaliko diozu?

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Uda luze joan da aurtten, baina halere gehiagorako gogoia daukazu. Gabonetan badaukazu oporrak, hegazkina hartu eta ospa egin lurralde beroren batera.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Txakurtegiara joango zara lagun bati laguntzera, txakur txiki batez maiteminduko zara eta etxera eroango duzu. Ea zelan azaltzen diezun orain gurasoei...

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Lagunakaz lotuko zara, aspaldiko partez. Baina erabat aztoratuta ibilikoz zarete eta, azkenean, danak alkarregaz haserretu. Zuenak konponbiderik ez dauka, ondo kalamidadea zarete!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Aspaldi hoztu zuen eguraldia, baina zuri bost. Antza, tarterik ez daukazu arropa erostera joateko. Ez izan baldarra eta zoaz beroki potolo baten bila, bestela hotzak akabatuko zaitu!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Goizetan klase, arrastietan eskolaz kanpoko hamaika jarduera... noiz atarako duzu tartea lagunakaz lotzeko? Faltan zaituzte eta azkenean haserretuko zaizkizu: zaindu maite duzun hori!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Bihar, esnatzean, ohetik salto egin, zapatilak jantzi eta korrika egitera urtego zara hondartza aldera. Baina zer daukazu: udagoieneko haize nahasiak zoratu zaitu ala?

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Lan handia egiten ari zara ingurukoak konbentzitzeko, zertarako eta azaroaren 25eko kontzentrazioa joan daitezen zuzaz. Segi horretan eta animo, ia danak zure aldeko dituzu-eta.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Katu txiki bat topatuko duzu kalean galduta eta nahigabea sorraraziko dizu, baina ezin etxera eroan han daukazun txakur eta txoriakaz. Beste bizileku bat topatu beharko diozu...

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Zein gustuko dituzun zozketak, daborduko taberna danetan erosi duzu Gabonetako loteria. Ez dakit tokatuko zaizun, baina sariaren parte bat zuk zeuk ordainduko duzu, hori ziur.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Negua badator eta hozten hasi da. Zein ondo, ezta? Gainera, laster izango da zure urtebetetzea: ohiko merienda motela egingo duzu edo, behingogatik, ganorazko jai prestatuko duzu?



Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan




Uribe Kostako aldizkariaren ekoizpena



denborapasa

HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker-eskuma

1. Bizkaitar eta arabar askoren eta gipuzkoar ez gutxiren udazkena. 2. Halakoak izan ohi ditugu duda-mudatan ibiltzen garenean. 3. Eragozpena edo oztopoa. Ate, hitz elkartzeetan. 4. Inor agurtzeko erabiltzen dugun diosal hitza. Aurrekoaren sinonimoa. 5. Antzinako Egiptoko jainkoa. Izadia. 6. Bizkai-eraz, iratzea. Luzera-neurri zaharra, gaur egun batez ere enborrak neurtzeko erabilia. 7. Artista nahiz langileen lantegi. Musika-nota, eskalan seigarrena. 8. Azkenekoa. Eraikin baten barruan paretara edo galeriaz itxitako espazio. Kontsonantea. 9. Zango askoren jabe da intsektu mota hau.

Goitik behera

1. Lapurdiko erdialdeko udalerría, Errobi ibaia-
ren bi aldeetara. 2. Ikararen isla. Hizki mutua. 3. Pozik, kontent. Aipamen. 4. Afrikako mendebaldeko errepublika. Behar, egiteko, eginkizun. 5. Egokia eta onuragarria da. Ernaltzeko zeri ar, ordots, apote. 6. Idi, hitz elkartzeetan. Ate inguru-
rua. 7. Halakoxeak dira ezagutzen diren pertsonak eta gauzak; beraz, ez ezazu muga. Ezer piztuta edo abian dagoela adierazteko hitz ingele-
sa. 8. Berezko. Kontsonantea. 9. Lorategian hazten den landarea, liliaceae familiakoa, loreak, zuriak eta usain oso gozokoak. Garai, aldi.

Soluzioa



ez horren gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Noiz da emakumeenganako indarkeriaren kontrako egun ofiziala?

> Aurrekoaren erantzuna: Muñarri, Fraidemendin (Sopela)
> Irabazlea: **Unai Kuartango**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **Oinutsik**
kontsulta podologikoa
Zubigane 4, SOPELANA. Tel: 94 404 74 20
oinutsik@euskalnet.net

Zer batzen dugu basoetan sasoi honetan?

- porruak, patatak, tipulak
- marrubiak, masusta baltzak
- perretxikoak, zizak, onddoak

> Aurrekoaren erantzuna: Getxon
> Irabazlea: **Andoni Sarasketa**
*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA **berria**
Astakiloen abenturak
Atxagaren 'Astakiloen abenturak' ipuin bilduma



Bittor Egurrola

ALGORTA TRAINERA, 1982

Algortako arraunlariak itsasadarreko uretan arraunean dituzue irudian; egia esan, arraunean baino, lehiari dabilta. Izan ere, Eduardo Rodriguez entrenatzaile zuen Algorta trainerak 1982ko V. Bilbo Hiriko Banderan parte hartu zuen, ordukoa da argazkia. Luis Frontela "Katalan"-ek jakinarazi digunez, garai hartan Kontxako Banderako ohorezko txandan ere jardun zuten Algortako arraunlariak. Orduko garai sasoiak bergogoratzeko pasa den urriaren 18an mahaiaren bueltan batu ziren arraunlariak, eta "Katalan"-ek kontatu duenez, arraunlarien afaria urtero antolatzeke asmoa dute. ○

- Popan:** Angel Remiro San Martin patroia
Ababorrean: Jose Luis Goiri, Ion Etxebarria "Sakili", Luis Frontela "Katalan", Angel Macho Aguirre "Matxoa", Jose Antonio Gorostola eta Jon Ander Saitua "Pekas".
Istriborrean: Jose Maria Goirigolzarri, Felix Rodriguez "Tabike", Jose Ignacio Suarez "Bakio II", Jose Luis Goirigolzarri, Jose Antonio San Martin, Jose Miguel Gonzalo "Misu".
Brankan: Jose Antonio Mena aurrekoa, brankaria

HUNG FAI CHIU > sukaldaria

“Ni konkistatzeko, plater bat arroz abakandoarekin”

Testua: **Ixone Vega** Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Alaia eta saiatua.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

El ultimo Samurai-n. Daukan kultur edukiera eta konnotazio historikoagatik. Gainera Tom Cruis-en papera ikaragarria da.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Tatuajeak egiten, daukan parte-hartze artistikoa apartekoa iruditzen zait!

Zure haurtzaroko oroitzapen bat?

Nire haurtzaroko oroitzapenik onena, amamagaz nituen gosariak dira. Maitasun handiz gordetzen ditut.

Badakazu ohitura txarren bat?

Nire gauzakaz zorrotzegia naizela uste dut.

Aitor dezakezun bizio bat.

Bideo-jokoek xarmandu egiten naute.

Zein plater gaz konkistatuko zintuzkegu?

Arroza abakandoagaz.

Zein da prestatzea gehien gustatzen zaizun platera?

Oilaskoa kantondar estilora.

Eta gutxien gustatzen zaizuna?

Usakumea txarri-belarri eta mero zuriagaz!

Badakazu ezizenik? Zer dela-eta?

Lagunek Chiu deitzen didate, abizena izateaz gain laburragoa delako.

Zein da zure amets setako bat?

Nire ametsa bete nuen erroak eginda sentitu eta familia osatu nuenean.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Amodio barik ezingo nintzateke bizi. o

LABURREAN— Hung Fai Chiu (Hong Kong, Txina; 1973) gaur egun Getxoko Igeretxe jatetxeko sukaldari-nagusi da. *Canal Cocina*-n telebista-saioa egiten zuen, eta sukaldaritza-liburu bat ere plazaratu du. 1982an utzi zuen Txina, eta Bilbo eta Madrilén hazi da sukaldaritza japoniarra eta kantondarra espezialitatetzat dituen sukaldari sonatua. Azken aldian *Antena 3* kateko *Top Chef* saioaren lehenengo edizioan parte hartzen ikusi dugu, eta hor bitakoa esperientzia oso positiboa izan dela aitortu digu: “Sekulako sukaldariak aurkitu ditut bidean. Han geunden guztien artean 20 Michelin-izar batzen genituen, sinestezina!”.

euskararen
eguna

abenduak
3

Berbodromoa

Altzagako Azoka Zaharrean 2 saio: 9:30 eta 18:30



TXOKOLATEA ETA BIZKOTXOAK PARTE-HARTZAILE GUZTIENTZAT

Antolatzaileak



Babesleak



XII

SALÓN DEL CÓMIC DE GETXO

GETXOKO KOMIKI AZOKA



22, 23, 24
AZAROA
NOVIEMBRE
2013

AREETAKO
GELTOKIA PLAZAN
PLAZA ESTACIÓN
DE LAS ARENAS
GETXO, BIZKAIA

ORDUTEGIA
HORARIO
11-14:30H
17-21H

IGANDEA
DOMINGO
11-14:30H
17-20H

SARRERA
ENTRADA 1'50€



metro bilbao



www.salondelcomicdegetxo.net